

Jean Duvoisin

BAIGORRIKO ZAZPI LILIAK

Juan San Martinen
Edizio prestaketa eta aintzin-solasa

ELKAR

Azaleko ilustrazioa: Jose Ignacio Treku

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.

© Juan San Martin

© Edizio honena: ELKAR S.A. Esterlines, 10. Donostia. 1987

Lege gordailua: NA. 1.270-1987

ISBN 84-7529-482-0

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L. Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

AINTZIN SOLASA

Baigorriko zazpi-liliak (Les sept fleurs de Baïgorry et la reine des sept fleurs) Duvoisin kapitainak argitaratu zituen kondairak ez dute ezer ikustekorik Nafarroako Margaritaren Heptameron-ekin, kondaira politok eskuratu dizkידatenek izenburuagatik susmo hori hartu bazuten ere. Haiek bezala, moralitatearen arranguraz eginak dira. Baina haiek Pizkundearen hastapenetan eta hauek erromantizismoaren hondarrean. Hala delarik, garai bakoitzeko giroak bereizten ditu ikuspenak eta bada alderik bi obra horien argudioetan.

Jean Duvoisin (1810-1891) idazle ospetsuaren obra hau zerk eduki duen mende oso batean ahanztirik? Ez da erraz ulertzen gure literaturaren premia gorrieri begira jartzen bagara. Balio gutiagokorik anitz berargitaratu bai da.

Funtsean, irudimenez beterik eskaini zuen elezahar berri-tua da. Orduan eleberri, gaur berriz elezahar. Giza kontseiluz edonorrentzat irakurgarri. Eta sormen aldetik Duvoisin kapitainagangik irten zen lanik interesgarriena Laborantzako liburua-rekin batean, eta honi zorrik gabea.

Ez dut uste aski arrazoi denik J. Vinson-ek behar bezala ez ezagutzearena. Inon errurik baldin bada, gure ikerketarako ahulezian areago jarriko nuke. Vinson-en bibliografia hark

eskaintzen dizkigun zirrikitu guziak hobeto ez aztertzeagatik. *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* (Paris, 1898) delako obraren bigarren tomoko aldizkari sailean CLXXXIII. erreferentzia, 793. orrialdean (J. Urkixoren oharpenez egin den azken argitalpenean 769. orrialdea daroa), Duvoisin-en obra horrena da, egile izenik aipatzen ez badu ere. Egilearen izenik ezaren hainako okerra da frantsesezko izenburua soil soilik ematea. Hori izan daiteke inork igarri gabe isilpean irauntzearen arrazoia.

Jon Bilbaok berri zehatzagoa ematen digu, egilea ez ezik baita ere euskara-frantsesez egina dela ziurtatuz. Ikus bere *Eusko Bibliographia*-ren III. tomoan, 75. orrialdean (Donostia, 1973). Hala ere harrigarria deritzagu orain baino lehen beste inor ez konturatzea.

Batzutan inoiz ez da berandu, baina bai gure literaturan eraginerako. Hor beti izango zen bizkortzearen pizgarri, sormenezko literaturaz hain urri ibili garenez. Izan ere, eskolara berandu sartu den hizkuntza honek presa du; burujabetza osoa edo baterez oihukatzen dutenek besterik uste badute ere.

Obra hau, frantsesez daroan hitzaurrean dionez, 1832. urtean bildutako ipuiez osatua da, baina ez zen argitaratu 1884-1885. urteetara arte. Urte horietan Paris-en ateratzen hasi zen *Revue des Basses-Pyrénées et des Landes* aldizkariaren lehen bi tomoetan zatika agertu zen.

* * *

Hitzaurrean eskaintzen zigun jatorrizko argibiderik, eta on zaigu bere ildotik zertzelada nagusiak hemen ematea. Bertan adierazten duenez, Espainiako errekonkista bide lortu zutela euskaldun suhar askok aitorensemetasuna, nafar erregeen eskutik. Guraso haien ondokoak, diruz baino bihotzez aberatsago, ez zirela jende xeheagandik berezirik bizi, elkarrekin jostatuz eta ezkonduz, zeinetan lotzen zituzten sortetxeen leinuak. Euskal Herrian gizon ezkondurik ez omen zen inoiz dantzatzen; pilota omen kasik jostaketarako joku bakarra.

XV. mendean arto ereintza hedatu omen zen gure inguruan. Lapurdi eta Nafarroa-beherean orduan zabaldu ohi-tura berri bat: neguko gau luzeetara heltzeaz, auzoak deitzen ziren artazuriketara, ekintza hau etxe batetik bestera auzalanean aldatuz. Famili buruak, aitorensemeak naiz maizterra, seme-alabekin bildurik egiten ziren artazuriketok. Etxeko jaunen presentziak onesten zuen auzoetako jende multso alai: neska eta mutil biltzen ziren barrezka, kantaz eta istorioak elkarri kontatuz. Buruzko nekerik gabe egiten ziren arto urkultze eskulan horietan asetzen zutelarik gogo. Aukerako unek ziren kondaira zaharrak elkarri kontatzeko. Oso ongi ezagutzen zituzten ipuiok —esango digu Duvoisinek—; baina miragarriak direnez euskaldunak atseginez entzuten dituzte.

M. Cerquand, Bordeleko Akademiakoak kondaira horietarik argitaratu omen zituen Pabeko *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts* (1), baina gaia buka ezinezkoa zeritzola.

La Fontaine-ren estiloko alegiak alde batera utziz eta be-raiekin batean gauaz baizik irtetzen ez ziren lurpeko eremuetako biztanle lamia jeinuak, gainerako kondairak beren sakonean, axioma, esaera zahar, atsotitz, izatez hain herrikoi eta apaingarri direnak. Erlijio gaian, maiz sartzen den karitate eta abar. Hara hemen adierazpen ziurra: «*Si l'on met de côté les fables dans le genre de celles de La Fontaine, et avec elles les contes sur les lamas, sorte de génies vivant sous terre et n'en sortant que la nuit, les autres récits sont des apologues au fond desquels on découvre une question morale ou religieuse, saupoudrée d'axiomes, de proverbes, de sentences, propres au pays, et qui lui servent d'ornement*». Birtutearen gorestasuna, euskaldunen artean ezer goresgarri bada beste munduan sarigarri dena da, kontatera bere etorriaz sainduen gisako naturaltasunez, kondairak horrela adie-

(1) M. Cerquand, *Légendes et récits populaires du Pays Basque*. Pau, 1875-1882.

raziko dizkigunez, eta Jesukristo bera ez zen airatu izan hemen beherean lurreko gertaeretara nahasturik gizajoen onerako.

Era hortara jarraituz aitortuko digu: Hauen asmatzaile ziren egileek, gugandik ehundaka urteak direla bizi ziren. Ahoz aho kontatzeko usuarioak ekarri dizkigu eta zenbat aldiz ez ote dire entzuleek adituak? Kontatzailearen irudimena zerbait aldatu dizkigu; kontraera bere nahietara zerbait sartuz garai bakoitzeko gertakariak txertatuz eta estiloak aldatuz. Oso erraz da ulertzea orduandik aldaerarik aldaeraz beren jatorriz iturri berdineko zirenak ez zaizkigula ziren bezalako osotasunez heldu. Arestian aipatutako bilkurez gainera, neguan auzoak taldeka biltzen omen ziren jenero bereko ele-zaharrak elkarri kontatuz.

Inor ez da harrituko elebidea emakumezkoek hartzen zutela esateaz, eta hartu ere, hizkuntz hontan, gizonezkoek baino askozaz hobeto, esaldi eta era zoliagoak erabiliz. L.L. Bonaparte printzeak ongi lekukotu zigunez Pirineoaren bi hegaletan egin zituen ikerketetan; horregatik jotzen zuen bereziki emakumeengana estudiatzen zuen hizkuntzaren aldaera jatorrak sakonki ezagutzeko.

Ohartzekoa da, egunetik egunera euskal kondairak heurak galduaz dohazela. Era hontako herri literaturaz arduratu diren idazleen eritziz, beherapen honen arrazoia, euskaldunak Hegoameriketara herriz aldatzeagatik dela. Baina hori horrela gertatzearen ondorioa baizik ez da. Oroi ditzagun Frantziako iraultza handiaren ondotik sortu ziren inperioko gerrateak, gure erresumetan laborantzaren husketa ekarri zuena; eta ondorengo errestaurazio edo berriztapenak berakin ekarri zuen bake oparotsua, kondairetarako zaletasun handia piztu zuena. Gure ohiturak bizi bizirik hartuaz kontatuko ziren, eta nekez pentsa lezake gure egungo euskaldunaren elea egilearena bera dela, E.B. de Crévecoeur-en *Souvenirs du Pays Basque et des Pyrénées en 1820 et 1821* irakurri ez baldin badu, zeren gogozko amets baten gutuna iduritu ko bai zaio. Gure denborok, benetan latzak bihurtu zaizki-

gu; hunkituz mintzen dira euskaldunak Europan etengabe-ko eraginez datorren politikaz, bereziki Frantzia, Espainia eta Italian. Herrien ibilia aldatu da. Euskaldun asko egoera honetatik ihesik dohaz eta gelditzen direnak arranguraz, seguritate-rik gabe, eta atsekabez. Oneginak itzuliko ahal dio baretasun esperantza, eta berehalakoan lortu beren baitaz-ko izate alaia eta era berean itzuli hainbeste maite dituzten kondairak.

Goazen orain ipuietara: Baleazale zahar batek aditzera eman zidanez Eskandinabiako eskualdeetan aurkitu omen zituen gureen antzerako kondairak. Neurri handi batean kasulitatezkoak iduritzen zaizkionarren, gure marinelak Ifarraldekoekin Erdi-Arotik zituzten harremanak bide. Hala erakutsi du euskaldun itsas-gizonak aintzinatik Groelandia eta Laponiako itsasoetan ibiltzen zirela, haietan lantegiak zituztenez. Bale eta makailao arrantzak elkartzten zituen hementgoak eta arktikarrak. Gauza jakina da Baionak Ligue Han-séatique osatzen zuela. Gure arrantzaleen segurantzak hala eskatzen zuenez.

Aintzina Baigorriko bizkunderen oinordekoek artazuriketaren bidez ematen zituzten jaialdien denborak ziren. Jaien iraupenean, ibarreko famili nobleen ostatu bihurtzen zen jau-regi hura. Jai haietan zazpi neskatxa agertzen ziren jakintzaz eta edertasunez oso bereziak, horren arabera, Baigorriko zazpi-liliak deitzen ziren.

Entzun ditzagun hortarako zaletasuna zuen batek leku berean 1832an bilduak. Gure adiskide guziek ez dute euskararik ulertzen eta horregatik ematen ditugu itzulpenarekin. Hala zion Jean Duvoisin kapitainak.

Itzulpen hori, esan bezala, frantsesez dator orrialde berrietan, euskarazko testuaren ondotik. Guk euskarazkoa soilik jaso dugu, bere kultur ondasunaren edukina denez gero.

* * *

*Etnografia aldetik ez noski, baina literatur balioz Labo-
rantzako liburua-ri zorrik gabea iduritzen zaigu, fikzio sor-
kundezko lanak euskararen alorrean hain urri ditugunez ge-
ro.*

*Biltzaile soila ote zen Duvoisin? Hala balitz, entzule ona
ez ezik, kontalari trebea genuen; bai horixe. Zerabilkin eus-
kara ordea ez da jende arruntak erabiltzen duen gisakoa, ika-
siarena baizik. Ezpairik gabe, hor ageri da Duvoisinin eskua,
idazle landuaren hizkuntza landuan.*

*Izan ere, Jean Duvoisin mugako Aduana kapitainaz gai-
nera Louis-Lucien Bonaparte printzeak euskararen ikerketa-
rako hautatu zituen lankideetarik gorena zen, berari eskatu
bai zion Biblia osoaren itzulpena, 1859-1865. urteetan Lon-
tresen argitaratua.*

*Lehenago Fenelon-en Aventures de Télémaque eleberria-
ren lehen hamabi liburua itzuli zituen. Argitaratzailek aur-
kituko ez zuen ustean utziko zuen lan hura. Hala gertatu ere;
inoiz ez bait dute argirik ikusi. Era berean, frantsez euskara
hiztegigintzaz ere saiatu zen, eta burubide berdina eraman
zuen. Hortarako, euskarazko libururik anitz irakurri behar
izan zuen, eta, hitzetara ez ezik, esaldietara ere zaletu zen,
lan hontan bertan ageri denez.*

*Agian, irakurketa horietan eskuratu zuen Kardaberazek
San Inazioen Ejerzizioen gainean idatzi zuen liburua. Ho-
nen eragina hain handia izatez, lapurteraz jarririk, 1856an
Liburu ederra izenburuz bere kontura argitara eman zuen.
Handik bi urtera, beragandik sortu zuen lanik aipatuene-
tzat geldituko zen Laborantzako liburua eman zuen Bona-
parte printzearen laguntzaz.*

*Kempis itzultzeari ere ekin zion, gero Haristoyk bukatu
eta 1896an argitaratua. Besteak beste, Demostenes eta
Cervantes-en zati batzuk ere bai. Gainera, euskal hizkuntz
eta literaturaren historiaz 5.000 planako eskuizkribuak utzi
zituen, Haristoyk adiarazi zuenez.*

Hala ere, lanik nagusienak L.L. Bonaparte printzearen

eskarizkoak izan ziren, eta horien artean *Biblia* osoaren itzulpena, sei urteren buruan euskaratua. Lan horien ordainez, urteko 1.000 libera ematen zizkion printzeak. Pascual Iturriaga ernaniarraren *Euskal jolasak* lapurteraz eta frantsesez eman zituen.

Bonaparte printzeak, *Klaudio Otaegirekin* senidetasuna zuen emazteen aldetik, *Otaegiren* emaztea eta *Printzearen* bigarren emaztekozakoa ahizpak izatez, eta honen bidez jarri zen *Antoine d'Abbadie*-rekin harremanetan. Honek eskatu zion euskararen ikerketaz arduratzea. Lehen kontaktua, 1856ko uztailaren 19an izan zuten *Baionan*. Han ziren *d'Abbadie*, *Duvoisin* eta *Intxauspe*. Gero, abuztuaren 7an bildu ziren lankidetzan hasi ziren gehienekin *Baigorriko Etxauz* jauregian. Garai haietan *Charles d'Abbadie*, *Antoine* euskaltzalearen anaia bai zen *Etxauzen* jabe.

Oroi ipuiotako herjauna *Etxauzko* jauna dela eta «zortzigarren lilia» bere alaba. Beraz, hariaren ildotik aditzera ematen denez, kontalekutzat *Baigorriko Etxauz* jauregi bera zen. Fisikoki hor kokatzeak zer ematen du aditzera? *Duvoisinek* han-hemenka entzunak zituenetan oinarrituz eta literatura forma ematean *Bonaparterekin* plangintzak egin zituzten jauregiaren oroigarri hutsa gorde nahi zuela? Ala ez ote, han lehen elkarrizketan erabili zituzten aburuetarik bat elezaharren bilketaz izatean oroitzapenez bertara begira jartzea? *Maria* izeneko aitoralabarik ezagutu ote zuen *Etxauzen*? Hara hor zenbait galdera zintzilik aztertu nahi duenarentzat. Merezi du ikertzea. Gainera, kondairok feudal garaiko giroz eta eraz emateak hor izan lezake bere arrazoa.

Aipatutako hitzaurrean dionez, *La Fontaineren* taxurako alegiak eta lamia edo antzerako mitikoak alde batera utzi nahi zituen. *Baina*, egituraz *Heptameron*-en erara agertuarrren, alegien jenerotzat jotzekoak dira, bereziki abere hiztunak bizitzaren esperientziatik ondorioz kontseilu ematez bukatzen direnak. *Horietakorik* baditugu *J.A. Mogel*, *Artxu*, *Goihenetxe*, *Paskual Iturriaga* eta besten. *Aitoralaba* ederrak kontatzeak eta jaunen menpekotasun horrek ordea, feudal

giroko kutsua lekarkigu. Behar bada, berez zekarten kutsa-
pen hori aintzinatik ahoz aho jasoak baziren. Baina erroman-
tiko kondaira zaleen artean ere bazen holakorik, J.V. Ara-
kistain eta J.M. Goizuetan agertzen denez. Duvoisininak ho-
riekin ere ezin konpara litezke.

Kondaira hauek ez dira senik gabeko fantasia hutsak, inoiz
gure erromantikoek sortu zituzten Aitor, Lekobide eta an-
tzerakoak bezala, ezta gutiagorik ere. Horiek baino gehiago
balio dutelakotzat nago.

Baita ere, esan beharra dut, ipui luzearen eta eleberri la-
burraren mugak oraindik erabakitzeke daudela literaturaren
uhartzean, non bukatzen den bata eta non hasi bestea. Jene-
ro horietan gauza bera gertatzen zaigu egiturarekin. Baina,
zehatz mehatz erabaki beharrik ote da? Margaritak nobela-
tzat jartzen zituen **Heptameron**-en kapituluak, Boccaccio-ren
Decameron-en gisara hornituz; eta, horiei jarraitzekotan, no-
bela jeneroan sartzekoa deritzagu. Gainera, Duvoisinek ele-
zaharrak jaso zituen, bere erara egosirik eta taxaturik elebe-
rri bihurtuko zituenak. Zeren testu luzeen barnean batabes-
tearen atzetik ipuiak kontatze hori nork daki **Don Kixote**
Matxako-ren lehen zati haiek itzultzean ez ote zuen ikasi.
Ipuioi elkarrekin duten koherentzia uka ezinezkoa da; lehen
biak edo ezik elkarri aski lotuak dira eta neurri batean hiru-
garrenak zubi egiten du. Helburua ordea, zer esanik ere ez,
kristau moralaren ikasbidetzat erabiltzen du.

Gaiok, beren muinean, alegi eta mitolojia oinarrituak
dira. Izan ere, nork ez ditugu ezagutzen azeri, bele, manda-
zain... alegiak? hartzarena Pirineetako basabere (edo lar-
abere, Duvoisinin hitzetan) nagusiaren mitoetan beste aur-
pegi bat erakusten diguna da. Tartaroaren ordea gure mi-
tolojia anitz bada. Ithurralaba bera, argudioaren taxuraz,
lamiekin parekatzekoa litzake. Adibide hauek indartzen du-
te Duvoisinin eskuz era berrituak diren ustea.

Nork uka lezaioke eleberritasuna? Dena dela, era horie-
tako narrazioetan aintzindarien artean agertzen zaigu. Ez die

zorrik joan zen mendearen hondarretan euskaraz egin ziren lehen eleberriei. Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzu-nak* (1870) norainoko itzulpena den diskutigarria da egilearen asmo bihurrituak ezaguturik eta apokrifotzat ere har ezina denez. J. Vinson-ek aski argitasun eman zigun, gero R. Bozaz-Urrutiak birretsi zituenak. Elissanbururen *Piarres Adame* saratararren istorioen lehen zatiak 1888rako emanak zituen *Paben*, baina ordurako agertua zen *Baigorriko zazpi-liliak* (1884-1885). Gero etorri zitzaigun Txomin Agirre *Auñamen-diko lorea* (1898) zeritzanarekin eleberriaren bide eredugarriagoak ezarritz.

* * *

× *Duvoisin kapitainaren lan hau berargitaratzean ortografia gaurkotu diogu, Euskaltzaindiak gomendaturiko arauetara. Oroi Duvoisin bera izan zela garaikoen artean grafia berritzaile (1). Izen propioetan soilik errespetatu dugu kontsonante ondoko h fonema. Salbuespena egin dut urhe, urre eta zilhar, zilar edo zidar metal nobleetan oraindik ikerketa zehatzik ez dugun ustean era guzieren aukera gorde nahirik; gai honekin ezer ikustekorik eskuartean dudan azterketak hala eskatzen didalako. Beraz, irakurleak barka nazala nere arazo partikular bategatik hori egitez.*

Bukaeran Hiztegiñoa jarri diot mugazemendiko irakurleen lagungarri.

Bijoaz eskerrik beroenak euskaltzainkide Jean Haritschelhar eta Piarres Charrittoni eman dizkidaten argibide eta kontseiluegatik. Baina bereziki Piarres honi zeren Broussainen lanak ikertzean aurkitu bai zuen eta nere esku utzi. Arestian esan bezala, Duvoisinin paperak Haristoygana pasatu ziren eta gero Broussainek hatzeman Azkueri hiztegiaren eskuizkribuekin batean beste zenbait eskaitza egiteko. Argitara berri

(1) Ikus Fr. Luis Villasante, *Historia de la Literatura Vasca* (2.en argitalpena, Arantzatu 1979) 190. orrialdean.

den Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa liburuan dator horren berri (1). Broussainek 1911. urteko azaroaren 20 eta 29an Azkueri idatzi zizkion gutunetan aipatzen da. Azkuek, urte bereko abenduaren 4an Baigorriko zazpi-liliak delako hori berak eskuratze nahia agertzen dio eta 1912.eko urtarrillaren lekoan erantzuten dio Broussainek ipuiori buruz, lortuko zituela eta buruz buru berak irakurri ondoren igorri J. Urkixoren bidez. Hortik ageri da Broussainek berak irakurri gabeak zituela; baina geroztiko berririk ez dugu. Hor gelditu ziren ahantzirik.

Baina, inoiz berandu ez denez, betoz Baigorriko zazpi-liliak zazpi eskualdeak batuz loratu nahi dugun literaturgintzaren lagungarri.

Donostia, 1987 - Ots. - 28.

Juan San Martín

(1) *Iker* - 4, Euskaltzaindia, 1986, ikus 148, 296, 298 eta 299 orrialdeak.

I

Beihalako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zaharrean ziren arto-xuritzeak. Badakizue arto-xuritzeetara biltzen ohi dela inguruetako gazteria, eta holako bilkuetan laket dutela kantu zaharren kantatzea eta noizbaiteko kondereen erreberritzea.

Halako solasak Baigorriko herjaunaren gogoko ziren; goan zen beraz arto-xurizailetara bere alaba andrearekin.

Han baziren zazpi neskak gazte deitzen zituztenak Herriko Zazpi-Liliak. Hekieri buruz hau erran zuen herjaunak:

Aurten, ene alaba andrearen ezkonarazteko gogotan naiz. Zuetarik zeinak-ere pollikienik erranen bait'u kondera zahar bat, hainari dote on bat emanen diot ene alabarekin batean ezkontzeko bere hautuko gizon gazte batekin.

Solas horrek begiak argiarazi ziotzaten Zazpi Lilieri. Senar bat nork berak hautatua, harekin dote ona, hortan bazen baktxari zertaz bihotzean pilpil eragin.

Bainan nola ahalke zerbaitez, hetarik nihor ez baitzen mintzatera abiatzen, herjaunak erran zuen:

Lehenik has bedi Leizarazuku Gana; adi dezagun dakien kondera. Izan dadien luzea edo laburra, ez da axolarik, gogaragarri izan dadien ber.

Ganak, herjaunari polliki agur eginik, ideki zuen ahoa, eta huna nola minzatu zen:

AZERIA, BELEA ETA MANDOZAINA

Dron dron dringilindron,
Bataren gaitza bertzearen on.

Egun batez, Borjatto azeria (azeri guziek Borjatto dute izena) iguzkitara zagon berotzen. Hor heldu zaio belea kexu handitan, zerbait arrangura handi burutan balu bezala, eta ahapetik erraten dio:

Borjatto, adi zak berri handia. Haritz baten gainean go-goetaka nindagolarik, bat-batean ikusi diat Petut mandozaina Latsagako mentatik ateratzen. Eskutik dilindan ekartzen zikan zikiro azpi eder bat. Gozoki behatu zioz bi edo hirur aldiz; gero mandoaren ezkerreko xixteran sartu dik. Ai! galteza merezi bailikek... holako zati gorria mandozain zirtzil batentzat egina ote duk? Begiz ontsa hartu diat zein tokitan ezarri duen. Orai, erraten duten bezain xotila balin bahaiz, errexki atzemanen diok zikirokia, eta bi-biek janen diagu; ezen gosez niagok, ez nauk oraino gosaldia. Petut astaputz Galharretako patarrari lotua duk orai; eta gainera deneko, ikusiko duk guri buruz etortzen. Atera hakio bidera, mira zak ezkerreko xixtera, eta gurea dukek zikirokia. Zer asea guretzat!

Solasa Borjattoren gogokoa ahal zen. Beharriak xut-turik, kokoriko jartzen da Galharretako patarrari beha.

Beleak etzuen gezurrik erran: mandozaina, tun tun tun heldu zen bere mandoaren gainean jarria. Azeria urrunera ohartzen zaio. Ordua zen ikusteko zer egin. Nola mando gainerat igan, nausia ohartu gabetarik? Azeriak epe guti, frango du debrukeria zerbaiten asmatzeko. Zer egin zuen?

Errara, luze bezain zabal, bidearen gainean etzaten da, begiak hertsirik, alegia hila. Petutek ikusten du; harritzen da; mandotik jautsirik, lotzen da gure maltzurari, bere baitan eginez, naski ihiztari zenbaitek tiroa emanik, oilo-jale xirtxilak han akabatu dituela bere txarkeriak. Behatzen dio gainera eta azpira; ilea momorra du, larrua zabal eta gori. Petutek dauka hartarik otxin bat bederen ateratuko duela. Ixter batetik harturik, azeria artikitzen du mando gainera, eta saka-tzen du eskuineko xixteran.

Ordu artean gauza hein bat ontsa goan zitzaion azeriari. Bainan nahi litakeen hartarik, ardura zerbait eskas izaten ohi da. Zikiro azpia ezkerreko xixteran zen, eta Borjatto eskui-nekoan. Lana zen batetik bertzera iragaitea gizona ohartu gabetarik. Azeria hari da zerbait joko asmatu beharrez. Fortuna alde jartzen zaio. Iguzkia beroa da, buruan jotzen du mandozaina; horra non loak daraman gizagaizoa.

Azeria arteaz baliatzen da; emekitto sartzen da bigarren xixteran, beheiti igortzen du zikirokia, eta bera jauzi batez badoha lurrera. Ahoan harturik jakia, zalu oihanpean itzal-tzen da.

Helkariari ernerik beha zagokon belea. Azeriak joko hortan leherreginik ere, axola guti zuken; haragiak zion axola. Ikusi duenean azeria puskaren jabe dela, ondotik badohakio galdatuz bere zatia. Azeriak ihardesten dio:

— Zer diozu, maitea? uste duzu zure paparoaren betetzeko jarri naizela biziaren galtzeko menetan?

— Ttattiko! zoroa lizate hori egingen lukena. Gaixoñoa,

ergelketa bertzetara bazohazke. Petutek ere ase on baten ametsa zuen; ni aseko naiz zuen bien orde.

Dron dron dringilindron,
Bataren gaitza bertzearen on.

II

HARTZAK NOLA GALDU ZUEN BUZTANA

Gana Leizarazukoa ixildu zenean, herjaunak eta han ziren guziek laudatu zuten boz batez.

Haren ondotik, Urdozeko Madalena gaztearen mintzaldia etorri zen.

Huna haren solasa:

Panat e repanat,
Nat de pecat.

Hartzak atera zuen hitz hori; buztana gosta zitzaion bere hitza.

Herjauna, beihalako gauzez oraikoez bezain jakintsun zare. Zuetarik, ordean, oi ene lagunak, zeinek erran dezake nola hartzak galdu zuen buztana. Egun, hori ez dakienak entzun nahi banaz, erranen duke bihar ni bezain jakintsun dela.

Jainko onak egin zituenean abere motak, hartzari, bertze guziera bezala, gibelean ezarri zion buztana, buztan luze eta hazkarra. Orai, bada, hartzak ez du buztanik. Nola galdu duke luzagarri eder hori?

Egun batez, goseak inguruka zerabilan hartzat: zerbait onik atzemateko lehiak, sudurra airera ezarrarazten zion. Bere usnak erreka batetara jautsarazten du. Eta zer ikusten du han? Borjatto jaunak, antzara handi bat itorik, jatera daramala, Hegoaritz-zilon.

Bi jauziz badohako, oihu egiten duelarik: Zer hari haiz, ohoin txarra? Nork eman dauk antzara hori? Xirtxila, utzak berehala, edo zafraldi bat aterako duk sari.

Azeriak etzuen utzi nahi. Erraten zuen nihork etzuela atzemaileak baino zuzen hoberik antzararen jateko. Hartzak kaskoinez ihardesten dio:

Que l'as panat!
Panat e repanat,
Nat de pecat,

Erran nahi baita:

Hik ebatsi,
Nik arrebatzi,
Bekatu dela ez die irakatsi.

Hainbertzenarekin, jotzen du azeria bere buztan hazkarraz, pinpoilka igortzen du hogoi urhatsetan harat, eta bi klasakoz iresten du antzara bere hegatsekin.

Borjattok min zuen sahets-hezurretan; emeki ferekatzen zituen minaren gozatzeko, eskuaraz hortzen artean erranez hartzak kaskoinez erran zuena:

Hik ebatsi,
Nik arrebatzi;
Bekatu dela ez die erakatsi.

Gero apalttorik hau ere erraten zuen:

Nik oloak,
Ez goxoak!
Hik ere beharko
Niri pagatu biharko.

Azeriak, ordean, zer egin hartzari? Ez da ahanzteko, gaizkia gogoan duen gaixtagina gai dela beti gaizkiaren egiteko,

indarka ez bada ere, eskupez bederen. Laster ikusiko duzue hean ez den hori egia.

Handik bi edo hirur oren gabe, azeria ohartzen da bere etsaia lo datzala, ongi gosaldurik, iguzki begira, haritz baten azpian. herresta-herresta hurbiltzen zaio emeki; estekaten dio buztana haritzari, eta lau-hazka badoha Olhaberriko gizonetara deihadar eginez: Hartza! hartza! zuen azien-den xahutzen hari!

Gizonak altxatzen dira, sardeak harturik, zakurrak aintzinean, eta oihuka. Harramantz hortara, hartza atzartzen da; ihes egin nahi luke, bainan buztana haritzari lotua dauka. Egonez galtzera dohala ikusirik, etsiako indar bat egiten du; libratzen da; ai! baina buztana, errotik ateraia, haritzari utzirik. Hola ihes egin dezake, oinazez marrumaka. Eta Borjatto irriz eta jauzika, eta gibeletik burlaz:

Panat e repanat,
Nat de pecat,
Nik oloak hartu
Hik orai pekatu.

Horra nola geroztik hartzak diren buztanik gabe. Hortarik ageri da gizonik txarrenak hazkarragoari min egin diozokela. Ongiegileak, esker guti izanen badu ere, ez du bederen etsai ixilkakorik egiten.

III

NOLA ELKARREN GANIK BEREZI ZIREN
LAR-ABEREA ETX-ABEREA?
NOLA GUZIEK GALDU ZUTEN MINTZATZEKO
DOHAINA?

*Bere aldian mintzatzera doha Geraxane Iriberrikoa, nes-
katxa gazte pinpirrina.*

Adi zazue zer dion:

Ixtorioa ez da hala-hulakoa, merezi du ez dadien utz gal-
tzera.

Herjauna, ez da ene usterahun lekoha hautan gizon ar-
gituagorik beroren Ohorea baino. Nor da, ordean, iguzkia-
ren azpiko gora-behera guziak burutan hartuko dituen? Li-
buruek ere ez dituzte guziak ekartzen; ez dukezu menturaz
hetan ikusi nola elkarretarik berezi ziren lar-abereak eta etxe
abereak, ez-eta zer ariaz batzuek eta bertzeek galdu zuten
mintzatzeko dohaina.

Jainko onak egin zituenean abere motak, gizonaren zer-
bitzura manatu zituen oro, xehe eta larriak.

Gizona gaixtatu zen ordean, bai-eta ordainez abereak ere. Etzuten gehiago entzun nahi nausia; eta areago dena, maiz egiten zioten bidegabe. Halaber, beren artean etsai jarri ziren; gerla gorritan zaramaten bizia. Dohakabe ziren beren manatzailea ukatu zutenez geroztik. Orduan ezagutu zuten, baitezpadako zela buruzagi baten izatea, bakea ezar zezan abere populuan. Gizonaren ganat itzultzea zuketen hobere-nik; bainan hisia gaixtoak etzuen nahi, eta hala beren arteko zeini eman manamendua?

Zenbaiti bururatu zitzaizoten batzarre handi baten egitea, eta han bozetik errege baten hautatzea. Ausarki abiatzen direnek egiten dute aintzina bide. Orotara mezulariak bidali zituzten beren erabakiaren erantzutera.

Batzuk ongi hartu zuten, bertze askok gaizki. Bainan emana zen abiadura; eta, egun berezian, bide guziak estali ziren zernahi abere motaz. Batzarrera zihoazen, multzo bat haro eta argudiotan, bertze batzu jauzi eta burbutzika.

Gizona ateratu zitzaizoten bidera, eta erran zioten: Zertara zohazte hola? Uste duzue naski ni baino nausi hoberik atzeman. Zoroak!

*Bilatzen duzue bonbon,
Zuentzat izanen da zedebon.*

Zuen arabera, errege hautatzera zohazte. Zoroak! diot berri-
zue; ez duzue zuek hautatuko. Holako irakiduretan, haz-
karrena, edo hobeki oraino ozarrena, jartzen ohi da buru-
buruko.

*Errege edo buruzagi,
Izenak ez du deusik erran nahi.*

Ene zuzena ukatuz, suertakari itsuetara sartzen zarete. Orai duzuen manamendua baino ordukoa gogorrago izanen da, bereziki aintzindari berria balinbada burugabea eta gizon ahula. Gainera heltzen lagundu dutenek nahiko dute heien erranetik mana dezan. Haren izenaz baliatuz, zenbat tzarke-
ria eginen ez dute! Nausi baten orde, ehunka izanen dituzue

nausiak zuetaz axola-gutikoak. Nahiko duzue bakea, eta zuentzat ez da izanen ez bake ez-eta pausurik. Gerla! gerla! batean itsua, bertzean ageria. Orduan, gaizoak, zuetarik zenbategen bizkarretik ez ditutzue galduko haragi bizi zatiak!

Hartza, hik baduk indar; ikusten daiat ile mamor gozoa; uste diat oraino ikusi hire larrua nausi berriaren bizkarrean ezarria, hotzak marranta dezan beldurrez.

Hartzak etzuen ongi hartu solasa; gurguria bat eginez, goan zen bere bidean.

Hor heldu da ximinoa, alegia saindu ttipia. Gizonak ikusi zuen burlatu nahi zela. Ostiko bat gibelean emanik, pinpoilka igorri zuen han harat.

Borjatto azeria, ostikoaren beldurrez, jauzika goan zen, murrikatuz, bainan ez hurbil danik, urrunduxe zenean.

Gehientsuak etziren horiek baino zuhurragoak agertu. Tarapatataki zihoazin, aintzinka. Bakarrak gelditu ziren gizonarekin.

Zaldia, idia, ahuntza, ardia, urdea, astoa, xakurra eta gaitua gelditu ziren. Bertze guziek egin zuten herritar batzarrea.

Lehoina mintzatu zen lehenbizikorik. Hau erran zuen: Anaia maiteak, behar baduzue errege gerlari on bat etsaiari buru egiteko, nik kargu hori har nezake, nahiz den karga handikoa; elkar adi zazue, eta librokori erran hean ongi zaitzuenetz.

Solasa etzen guzien gogoko, bainan etziren zehar goateara atrebitu. Geroko beldurrak ixiltto atxiki zituen. Ordukotz, lehoinak zenbaiti aginduak zituen kargu hoberenak, baldin errege izendatua izaten bazen. Heiek eta adiskideen adiskideek goraki erran zuten balentena behar zela buruzagi. Xeheria guziak laudatu zuen berehala solas hori, elkarrizkiotek, lehoina etzela berez gaixtoa, samur-aldiak ere etzituela iraunkor, eta laguntza ona izanen zutela handi-mandiek arrangura-bideak emanen zituztenean.

Horra nola hautsia izan zen Jainkoak ezarri legea.

Ondorioak etziren hobeak izatu. Geroztik hunat lehoina bere hautatzaileak janean bizi da. Erregek bezala egiten dute haren ondokoek, eta lar-abereen artean ez da lehen baino bake hoberik. Beti gerla gorria dute, *Txarrenak amor!* (1) horra heien arteko legea. Egiaz, balitake bertze lege bat hori baino zuzenagoa, bainan hura paper pozi bat, gaixtaginen baragara ez dena.

*Zapata xuriak paperez,
Uria denean baterez.*

Jaunak, hasarre handitan, bere aintzineraren deitu zituen gizona eta abereak. Agertu ziren ikaran.

Jainkoak gizonari lehenik erran zion:

— Gaixtatu haiz, gaixtatu. Kentzen daiat abereen gainean eman naian nausitasuna. Bainan nola ongia ere zenbait aldi egin izan baituk, aintzina manatuko dituk hirekin gelditu nahi izan diren aziendak. Bertzerik baterez! Horra hire gatzigua: basek eginen daie gerla.

Orai, abereen aldia. Jainkoak erraten diote:

— Zuek, lar-abereak, nik eman legeaz egin duzue arrangura, eta ikusten dut gaixtakeria gaixtakeriaren gainera darazuela ene legea hautsi duzuen ordutik. Bi gatzigu merezitu dituzue. Behinik behin zuen mihiari kentzen diot hitza. Gaur-geroz zuen mintzaia izanen da orroaka eta kirrimirrika batbederaren jitearen arabera.

Bigarren gatzigua izanen da egiten dituzuen gaizkien araberakoa.

Hi, hartza, hire indarraz hantua hindabilan. Higuin diat urgulua. Bertzalde, nik maite ditudan bildots eta ardiak, hik puskatzen eta jaten dituk Gizonaren aztaparretara eroriko haizenean, salduko hau alfer tzar zenbaiti, lanean hari gabe bizi nahi denari. Pinpirrina ez haiz; halere beharko haiz karrketan dantzatu, makilaren lardarian, muturrekoa ahoan,

(1) Erran zaharra, atsotitza.

hiri beha geldituko diren xoro ergelen irrigarri.

Lehoina, hi bizi haiz bertze abere mota guzien gostuz. Gizonari ere oldartzen hatzaio zenbait aldiz. Gizonak erabiliko hau tiroka; eta bizirik atzematen hauenean, ezarriko hau burdinazko kaiolan, eta eramanen hau hiriz hiri, jendeen ikusgarri, hi abereen alegiazko erregea.

Jainkoak, bertze lar-abereeri eman ondoan zeini bere gaztigua, deitu zituen etxe-abereak, eta erran zioten:

— Ene lehenbiziko legea hautsi gabetarik, gizonarekin gelditu zaretenak, zuek ere baditutzue hoben pagatu beharrak.

Hi, zaldia, lasterkari handia haiz. Zertako harotzari eman diok uztar, burdinazko zapatak ezartzen zaizkikanean? Hire onetan hari zukan; ezen, bertzenaz, haragiraino higa hintzazke behatzak. Oraino gehiago: lurrerat artiki duk hire nausia, zeren naski zaldarez soberaxe ase hintuen. Horien gatik, emanen daiezela bizkarrera, brida-burdina ahora, eta hire gainera iganen duk nausia. Azotearen beldurrean erabiliko du, berak nahi duken toki guzietara.

Hi, idia, ezdeuskeria baten gatik ez haiz ahalke izan adarraz jotzeko hire nausiaren andrea. Ikusten huen etzela hire hezteko indarretan. Haren haurrak ere lotsatu dituk, baihakien ahalgabeak zirela. Horien gatik, beharko duk jasan uztarria eta lanean hari, akuloaren azpian.

Hik, ahuntza, gaztaina landareeri larrutu hioten azala. Bahakien bidegabe egiten huela; aitzakiarik ez dun. Eta hik, ezin-asezko ardia, artoa, hire nausia hazi behar zuen artojan dun, sortu eta lurretik goititzen hasi orduko. Biak bardin hobendun zarete. Ordain zuzenez biek ez duzue zuen esnea gozatuko; gizonari eman beharko duzue zuen umeentzat ez den guzia.

Urdea, hi, goiz arrats beti kurrinkaz eta arranguraka hango. Higuingarri duk hire musika. Hire su, hire gogo guzia ematen duk zikinkeria higitzen muturraz. Zerbitzurik ez duk.

Lohian ea zikinkerian eramazak bizia, gizonak hazi nahi haue-
no, eta jan beheza gero lan gogorak dituzkeenean.

Hik, Miñi, haurraren esnari kendu dion gaina. Gaine-
raketik ere ez ahal huen hanbat utziko, etxeko andrea ez ba-
litzain heldu. Sagu arratoinak atzamatzen ditun; ongi luken
hori, ohoin txar bat ez bahintz. Xakurra ematen dainat par-
tida: etzarete behinere adiskidetuko, eta harekin izanen dun
ikusteko zerbaiti lotzera eginen dunanean.

Xakurra, hi orotarik fidelena izan haizelakotz, izanen haiz
gizonaren adiskidea. Oroit hadi hargatik, behin batez lan-
dara eramaten hiolarik gosaria, hura bidean janik. Hutsa eka-
rri hion zarea, ustez naski hire gezurrek aski ontsa aseko zu-
tela hire nausia. Behingoa barkagarri duk, zeren nausiaren
zaintzeko, uzkur baihaiz hire biziaren menturan.

Ahantzer dut astoa. Nola ez baita kantari ederra, ez dut
nahi elizan sar dadien, ez-etaere jaun erretoraren pentzean.
Murriztu duk belar saildua. Elizakotzat ematen dena enea
da. Horren gatik astoa ibiliko da hastariketa iharara. Abere
onto bat da, nahiz burua gogorskoa duen. Ez bezo gizonak
eman haxe dorpeegirik bizkarrera.

Batak du hoben bat, bertzeak bertzea. Baina bada beka-
tu bat, guziek bardin duzuen: mihi gaixtoa duzue. Hazten
zinituzten nausiaren gainean zenbat ele txar ez duzue erabi-
li! Zuen marmazikak nitaraino hedatzen ziren. Hoin gaizki
baliatzen zaretenez geroztik mintzatzeko dohainaz, kentzen
diot zuen mihiari hitza. Egundanik, zaldiak eginen du *ihih*,
idiak *muu*, ardiak eta ahuntzak *bee*, urdeak *urru urru*, as-
toak *aa*, *aa*, gatuak *ñau*, xakurrak *ttau ttau*.

Jaunak eta andreak, zuetarik norbait lehiatsu balitz ja-
kitera noiz gertatuak diren sendagaila horiek, lehenik berak
erran beza zenbat ur ehun urtez goaten den Baigorriko zu-
biaren azpitik, zenbat hosto duen oihanak, zenbat xori da-
bilan airetan. Hori erran ahal badezat, nik ere ihardetsiko
dut haren galdeari.

Eta zirt eta zart

Malapart.

Gizonak bizarra gorri

Aldara bidetik horri.

*Hitz horren gainera, guziak irri karkaraz zabaldu ziren
eta esku-zaflaka oihuz: Ederki! ederki!*

IV

TARTAROA

Orai Extebeni Mokozaingoaren mintzaldia dugu. Tartaroaren ixtoria hunela erran zuen:

*Eder da eder besta-eguna,
Oker ez badu biharamuna.*

Herjauna, badakizu Jainko zuzenak maiz gaixtaginen eskuz gaztigitzen dituela heien iduriko gaixtaginak.

Debrua goan zen behin Jainko Jaunaren aintzin eta hau erran zion:

— Jainko handi, Jainko boteretsua, zure ganik heldu diren gauza orotan agertzen da zure zuzentasuna, eta bidegabekeria ez da nihoiz ikusi zure erabakietan. Ni, naizen dohakea, izatu naiz gaztigitua; aitor dut merezi nuela. — Bizkitartean badaude gaixtagin asko ni bezala zatituak izan gabe. Nola jasaiten duzu jendaki bat, gauza izigarrienak eginenez, kistau haragia janez bizi dena?

Jaunak ihardetsi zuen:

— Ez dagokik hiri galdatzea zer ariaz egiten dutan hau

edo hori. Utzak ene gain zero lurren gobernua. Hi, izanen haiz beti leheneko Satan zimarkutsu hura bera. Aitortzen duk ene zuzentasuna, eta aitzakiatzen duk hanbatean, erranez ez dutala gaztigatzen populu hobendun bat. Ez duk behinere aditu erraten?:

*Jainkoa luzakor,
Ez ordean ahanzkor (1).*

Etorria baita jendaki madarikatu haren gaztigatzeko ordua, habil heroni; oraikoan ematen daiat eskua halako gaixtagineri egiteko nahi ditukan min guziak.

Habilkit begien aintzinetik.

Gaizkiaren egitea, debruaren gogoko lana zen. Berehala goan zen handik eta lurrera jautsi zen, marruma ilun itsusi bat eginez.

Non zen bada jendaki tzar, Satanen eskura utzia izatea merezitu zuen hura? Urrun hemendik, urrun itsasoz eta leihorrez, itsasoz eta leihorrez urrun; gure leihorretarik eta itsasoetarik haratago, guk ezagutzen ez ditugun aurkintzetan.

Pesiak emanik, kosta basa hartara jotzen zuenean unti batek, hango jende gizajaleek errerik iresten zituzten leihorra hartzen zuten mariñelak.

Eta zertara ohartu zen debrua xahutzeko lanaren abiatzeko?

Izenik ez duen mendi gora baten kaskoan zagon Tartaro izigarri bat, harroka muturrari burdinaz josia, egin izan zituen gaixtakeria handien gatik. Debrua goan zitzaion xixtu firrintaka, su pindarrak bidean zariotzala. Tartaroari erran zion: Nik manatuko darozkian guziak egin nahi badituk, nik urratuko ditiat hire burdinak eta hortik ateratuko haut.

Tartaroak gogotik agindu zuen eginen zituela debruak ma-

(1) Erran zaharra, atsotitza.

natuko ziotzan guzi guziak. Orduan Satanek trenkatu zituen Tartaroaren burdinak, xotx iharrak izan balire bezala. Lepo zakitik hartu zuen Tartaroa eta xirurika eraman zuen lasto izpia bezain errexki, urruneko itsaso gaitz haren bazterrera. Hamar idiren larruz egin zuen harritzeko zahagi bat; haren gainean ixtaklok ezarri zuen Tartaroa, eta erran zion: Habil aitzinean dukan lur hortara, eta horko jendeari egiok ahal dukan min guzia.

Tartaroa bozik eman zen itsasora; bere beso luzeak erabiltzen zituen hala nola mariñelek arraunak. Hariz hariz, ardietsi zuen leihorra.

Jende guzia bildu zen haren ikustera; eta egundaino ez baitzen negurri hartako gizonik aurkintza hetarat agertu, batzuk miretsiz, bertzeek beldurrez, orok egin zioten besta eta ongi-etorri hainitz.

Bainan behar zen hazi, eta etzen errex. —Xahal bat osoa jaten zuen gosaltzeko; eguerdi arratsetan etzuen gutiago behar. Hola, laster iretsi zituen tokiko xahal guziak. Orduan hasi zen haur jaten; eta norbait arranguratzera ausartatzen bazen, burutik behera jorik, odola zariola gordinik jaten zuen hura ere.

Etzakioken gerlarik eman: haren larrua hain zen gogorra, non ez baitzen tresnarik hura zilatuko zuenik. Jendea izitu zen; oihan eta harziloetara ihes egin zuen.

Hortan ziren, lar-abereen pare, belar eta basa fruituak hazkurri, uhartzean agertu zenean untzi bat. Pena gaitzak leihorrera hurbildu zuen laster. Mariñelak lurrera jautsi ziren. Beldurrak harziloan gordea zadukan gizon bat, bere zokotik ateratu zen, arrotzak ikusi zituenean eta erran zioten: Nor edo nongoak zarete zuek? —Eskaldunak gare. —Ongi! ongi! badakit zuen fama, badakit prestuak zaretala eta gizon bihozduak. Horren gatik albiste salbagarri bat nahi dartzuet eman. Ez bide dakizue toki txarrean zabiltzatela; bada hemen tartaro ezin-bentzutuzko bat, zeinari gozo baitzaio kristau haragia.

Betor! betor! diote Eskualdunek, mintzatuko gare debruak berak ezin ikasi duen mintzaiaz. —Berautzue, dio gizonak; haren larrua burdina bera bezain gogorra da, harmaz ezin zilatuzkoa; ahotik eta begitik baizen ez dakioke deus egin.

Solasean daudelarik, hor agertzen da Tartaroa. Arrotzak ikusi ditueneko lasterka heldu da eta irrintzinaka, bere ustez ase on baten egitera.

Ganetxiki Hendaiarra orduan baliatu zen gizonak eman albisteaz. Bazuen habala bat marrazo larruz egina. Xisparik etzen oraino denbora heietan. Hendaiarrak habalan ezartzen du harri bat, eskura heltzen zaion biribilena. Hirur edo lau aldiz birungatzen du habala buruz gainetik, eta igortzen harria hain zuzen eta zorrotz, non lehen aldiari Tartaroari lehertzen baitio bere begi bakarra.

Digantea lurrera doha. Lazgarri zen haren ikustea herrautsean zalapartaka, ihauska eta marrumaz. Harri, zur puska, atzeman guziak hortzez karruskatzen zituen. Ez da hortaz izitu Hendaiarra. Badohako Tartaroari, lotzen zaio ileetarik, eta oihu egiteko ahoa ideki duen batez, handik ezpata sartzen dio bihotzeraino.

Bizi ziren jendeek jakin zuteneko Tartaroaren heriotzea, ilki ziren gordegailuetarik. Ez dute geroztik leheneko tzarkeriarik egiten, orai ezagutzen dute Jainko legea. Mariñeleri behar-orduetan laguntza ematen diotete. Eskaldunek bereziki besta handiak izaten dituzte heien leihorretara jausten direnean, jan-edanak eta bizigailuak oro urrurik.

Bainan non da toki hura? Urrun gure lurretarik, urrun gure itsaso etarik. Satharitzeko eta Leizarazuko ene bi kusiak, eta Buzunaritze Salaberriko semea, Ziburun egoten eta itsaso guzietan barna ibiltzen direnak, izatu dire urruneko toki hartan. Heien ganik dakitzat gauza horiek; seguratu nautte arras egiak direla; eta gertatu ez balire, etzarotaten naski segurantzaz hori emanen; heiek ere tokiko jendearen ganik ikasi dituzte.

V

BITARTAROA

*Orduan xutitu zen Fermina Leizpaz-Jauregikoa, eta gu-
zieri agur eginik, mintzatu zen hunelaxe:*

*Herjauna, eta zuek ene lagunak, aditu duzue Tartaroa-
ren ixtorioa; nik ahal dutan bezain ongi erranen dut Maza-
rrun bitartaroarena.*

*Gaztetasuna bero,
Zaharra ez hain zoro,*

Urkietao ordokian bizi ziren borts umezurtz, lau anaia, arrebata batekin. Margarita zuen neskatxak izena. Guzien erranera, iguzkiaren azpian etzitaken ikus haur ederragorik. Larria zen eta zardaia; haren gerri meharra zalu zen zumearen pare. Ilaia, belearen hegala bezain beltza, kuskulaka jausten zitzaion sorbaldetan behera. Edertasuna zerutikako dohain bat da; hartan nihork ez du merezimendurik. Bertze ariaz zen maitagarri gure Margarita eta jakin zuen bihotz guzien biltzen.

Bere anaiek itsutuki maite zuten. Bertze dohain guzien gainera, bazuen boz hain ozen eta gozoa non, diotenez, abe-

reak jatetik gelditzen baitziren haren entzuteko. Iduri zuken zorionez bizitzeko sortua zela:

*Bainan ez da arrosarik,
Non ez duen arrantzerik.*

Gazte horiek mendi gora baten beheko aldean zuten egoitza. Anaia arrebak goan ziren behin mendi hegalean basuoen ihiztatzer. Sareak hedatu zituzten. Bainan haizea ez baitzen alde, usorik etzen ageri. Neskatxa harat hunaka zabilan, ez jakinez nola iragan denbora.

Anaieri erraten diote: Nahi zinukete mendi gainera igan enekin? Iduri luke bazter eder asko handik ikus ginezakela. Anaiak elgarri beha gelditzen dira, zerbaitek lotsatzen bali-tu bezala. Ageri zen solasa etzela heien gogokoa. Heiek bazakiten mendi gibleko berri; eta beldurrez on etzen zerbait arreba maiteari gerta zakion, bizkar hartan agertzerat etzuten utzi nahi. Lauak ixilik zauden. Margarita ohartu zen segretu zerbait bazela hortan. Zer ziteken jakin nahiz, lehia bi-ziago bat hartu zuen. Goazin mendi gainera, zion beti; eta anaiak beti gogorretik. Zer egin dut bada zuen desgogora-ko? dio Margaritak; eta haren begi ederrak nigarrez betetzen dire.

Orduan anaia gazteena mintzatzen da: Ez ote gare bada gu gure arrebaren zaintzeko, aski ozarrik nihor izan baladi huni jazar egiteko? Ni bederen, ene biziaren ematera nago ene Margaritañoaren alde.

Zaharrenak, solas hortaz min harturik, berehala ihardesten du: Gu ez gaituk hi baino gibelago, behar balitz ere debruari buru egin gure arrebaren beiratzeko. Eta hola mintzo haizenaz geroz, abia gaiten (hasarreak urrunegi zaraman), goazin, laster ikusiko diagu zer den hire gaitasuna.

Ordu berean, arrano batek izaia handi baten gainetik kantatzen zuen:

*Atzo hala, egun hola,
Nork daki bihar nola?*

Hori aditzearekin, zaharrenak erran zion anaia gazteari: Orroitzeko izanen duk aintzinago goatera behartu gaitukala; eta urrikibiderik ateratzen balitzaiku, hi izan hainte, hi bakarrik hobendun.

Igan ziren beraz mendi gainera; ibili ziren inguruka, alde orotara behaka. Handik bazter ederrak ikusi zituzten; eta neskatxak izan zuenean aski, gibelerat itzuli ziren makurrik baterere gabe.

Zerk lotsatu zituen bada lau anaia hazkar eta bihotzdun horiek?

Mendiaren gibelean egoitza hartu zuen digante izigarri batek. Mazarrun bitartaroak. Sorbalden ganean bazituen bi buru, bakotxa begi bakarrarekin. Hamar besoz luze zen eta araberaka lodi. Arto bat osoa sar zitaken haren aho bakotxean.

Mendi gainera igan zenean Margarita, bi gerenden arte-tik beha ziagon Mazarrun. Balditu zen. Etzuen uste munduan bazitakela hain gizalaba ederrik. Bere harriduran, mutitua gelditu zen, horma puska bat iduri. Ez, hormarik etzen haren baitan, bai ordean su bat piztu zen, deusek ere ezin irau-ngizkoa, gau eta egun erreko zuena.

Burua galdurik, abiatzen da laster hunat, jauzi harat; marrubiaka mintzo da.

Ai ene zorigaitza! dio; ai ene dohakabea! norat suntsitu da ene arimako argia? Nork hunat erakar zoratu nauen izarra?

Gaurgeroz nola biziko naiz ene barneko oinazearen gozagarririk gabe? Ai ene arimako argia! berriz ere ager zaite ene begietara. Ez dezazu nahigabez herratzerat utz zu baizik egundaino maitatu ez duen bihotza. Oi ene maitea, ene usoa, ene begiko ninia! zato ene besoetara; hemen zuretzat daude urhe, zilhar, diamantezko murrak.

Alfer dire oi huak; nihork ez ihardesten... hitz on bat nihondik ez ezagun. Mazarrun erotu da; badabila jauzika, gero lur-rean ihauska; ehun kintaletako harriak oin muturraz

errekara anbiltzen ditu.

Oihuari lotzen da berriz: Ai ene arimako argia! oi ene izarra! zerutik jauntsia zinen naski; betiko harat itzuli ote zare?

Nihork ez ihardesten... nihondik hitzik... Marrumaz dago Mazarrun *inha! inha! inha!* eginez.

Haizea heldu da, firrinta arin bat hegalez egiten duela-rik. Baratzen da Mazarruni beha; ikusten ditu haren zalapartak.

Oi Haizea, dio Mazarrunek, hik apur batez egiten duk munduaren itzulia; hi haiz gauza guzien lekuko; duda gabe hik badakik non itzalia dagon ene bihotzeko maitea. Habil, errok hura gabe iguzkiak ez duela enetzat argirik; errok hean hura maitatu dutalakotz nahi nauenez hemen minez hiltzerat utzi.

Haizea beha zagokion. Hanbateko bihozminari urrikal-
durik, Mazarruni erraten dio: urrikaltzen hatzait zeren nik uste baino barne samurragoa dukan. Ema hadi, Mazarrun gaizoa; goanen nauk, erranen zioat hire maiteari nolako oinaze urragarrietan hagon orai haren minez.

Haizea zin-zinez mintzo zen. Hedatzen ditu bi hegalak eta arinik badoha. Lore biltzen ikusten du Margarita pollita, hurbiltzen zaio eta erraten dio Mazarrun jaunak ezkontzaz galdatzen duela.

Hitz horren gainera, Margarita pollitak aurtikitzen ditu bere loreak, izkiritu min batekin diolarik: Pues! pues! ni bitartaro izigarriaren andre! Hil! hil! mamu itsusia.

Haizea, mandatari leiala, arrapostu horrekin itzultzen da, eta aditu bezala egia erraten du.

Ordu berean, errabia beltzak hartzen du Mazarrun; Haizeari berari nahi zioken jazarri; eskuak hedatzen ditu, aztaparretan haren itozkeko. Bainan frixt airatzen da Haizea, xirribika soinu bat eginez.

Mazarrunek, errabian, bere esku gaitzez errotik deramatza

haritz ondoak, eta buruaren gainetik birungatuz, beso-gainka igortzen ditu mendiz haindira, diolarik: Balinba lehertuko ditutzue Margarita pollita eta bere anaiak. Pesia ortzietan nola harria erortzen baita lurraren gainera, hala erortzen ziren haritzak mendiz goragotik, eta batek lehertu zuen lau anaie-tarik gazteena.

Ageri zen Jainkoaren justizia zabilala guziera erakusteko ez dagokiotela gazteeri zaharragoen manatzea, bainan berak behar direla behatu zaharren erranari.

Asturugaitz horren ondotik, bertze anaiek erran zuten elkarri: «Galdu dugu gure gaztea; bainan goazin, bizia biziaren eman beza bitartaroak».

Mendia gora zihozelarik, arrano kantariak izaia gainetik kantatzen zuen berriz:

*Atzo hala, egun hola,
Nork daki bihar nola?*

Mendi gainera heldu zirenean, handik, elkar lagunduz, harri kitorrak gain-behera ponpeka anbiltzen zituzten. Mazurrunek ere igortzen zituen arbolak eta harriak. Makurtua zelarik haritz baten ateratzeko, gainera erori zitzaion harri mokor bat eta porrokatu zion bizkar-hezurra. Oren baten bitetik entzun zen harek egin zuen orroa.

Biharamunean eta ondoko egunetan, arrano kantariak izan zuen zer jan.

*Nahi ez duenak aditu ezkila,
Sokaren hunkitzen abia ez dadila.*

VI

ITHURRALABA

Ferminaren ondotik, etorri zen Martha Okhilenberrokoaren aldia. Bere mintzo eztiarekin hunela kondatu zuen Ithurrabalabaren ixtorioa.

Herjauna, gaztea naizen bezala, barka otoi ene hutsak, ezen errateko Ithurrabalabaren kondera, ez da hain errex nolabertze zenbait.

Nik ez dut ikusi Iratiko erreka gaitza: —Amaxok erranik dakit hain barna eta barna dela, non iguzkiaren argia nekez heltzen baita beherera dino.

Hango pendoitz handiaren azpitik jauzten da iturri bat, zilhar-bizia iduri, eta hain hazkarra non ihara bat alan ezar baitezake. Errekan, hor-hemenka bada kotor asko zeinen artean ur trabatuak osinak egiten baititu.

Erran arabera, beharria, toki haren gaineko aldean lurrrari beharria emanen zuenak, entzunen zuen kantu bat zoragarria; nihon ez omen da hain ederrik aditu; xoriak hara goaten ziren kantatzen ikastera.

Bainan nor ausartu harat jaustera? Zioten Ithurralabak han zuela bere egoitza, palazio bat gure eliza baino handiagoa, gauza ederrez betea, eta harat atrebitu zirenetarik nihor etzela egundaino gibelerat itzuli. Zioten ere Ithurralabak burdinetan atxikitzen zituela hura ikusi zuten guziak. Nor edo nolakoa zen, nihork etzakien. Beldurrak urrun zadukan jendea. Artzainek handik baratzen zituzten ardiak. Orkatz bat, ziotenez, egun oroz hara goaten zen Ithurralabari esne berriaren ematera.

Gauza miressgarri horien aipua heldu izan zen Behorlegiko jaun gaztearen beharrietara. Hartu zuen bere begiz ikustera goateko lehia beroa. Ihiztari handia zen bezala, maiz ihiz bazohan alde hartara; bainan nihork bururaino ezin erakuts ziezoken bidea. Urrunago aldi oroz eginez, azkenean heldu zen pendoitz mutur batetara, erreka gaineko aldean; eta handik zer ikusten du? Ithurralaba osinean igerika, Ithurzurrunbilo deitzen duten tokian. Igerikatu ondoan, Ithurralaba pendoitz azpira sartu zen, eta ihiztaria ere itzuli zen bere etxerat.

Bai, ederren artean ederra zen Ithurralaba; behin ikusten zuenak begietarik ezin ken zezakeen haren iduria. Behorlegiko jaun gazteak urhats bat etzuen egiten hura gogoan izan gabe.

Biharamunean mendira itzuli zen; gero egun guziez, eta beti hurbilxago aintzinatuz. Neskatxa ere goiz oroz harpetik ateratzen zen Ithurzurrunbilon mainatzera: Nola ihiztariari ez baitzitzaion deusere makurrik gertatzen, egunetik egunera ausartagotuz, harkadien ingurua eginik, azkenean jaus ten da harpeko sarbidera. Han kausitzen ditu Ithurralabak mainatzerakoan utzi soinekoak. Besoetan hartzen ditu eta pendotz gainera eramaten. Handik ikusten zuen Ithurralaba igerika eta pulunpeka urean dostatzen. Haren ilaia, urhea bezain horia, lodia ogi espala iduri, lurreraino, heltzen zen. Belo batek bezala estalzen zuen.

Uretik ateratzen, laster ohartu zen Ithurralaba norbaitek

soinekoak eraman ziotzala. Ahalkez osinera jauzi zen berriz, eta handik minki otoitz egiten zuen, erranez: Nornahi izan zaitezten, ene soinekoen hartzailea, otoi otoi bihur zatzu ur hegira. Ihiztaria gordea zagon ixil ixila. Neskatzax etzen ototzetik baratzen; azkenean nigarrez hasi zen.

Gizon gaztearen bihotzak gaindi egin zuen orduan. Ohartu gabe, amore belarraren gainean jarria zagon. Ez da hemen halakorik. Diote bihotzik gogorrenak beratzen dituela. Ilki zen itzalpetik, eta erran zuen: Oi Andre gízalaben artean parrerik gabea, ene eskuetan dira zure soinekoak: Nola utz? hautan lotua da ene bizia, ezen zu gabe ez naiteke gaurgeroz bizi. Gogotik bihurtuko darozkitzut, agintzen badarotazu jarriko zarela ene bihotzeko erregina.

Ez dakizu zer galdatzen duzun, dio Ithurralabak. Ezina da hori: ene amak ez nintuen egin lurraren gainean bizitzeko; eta zu ezin bizi zaitezke ni bizi naizen tokian.

Etsi-etsian gizon gazteak erraten dio: Nola zu bezain andre begi eztikoak izan dezake harriaren pareko bihotza. Jakin dezazun amodio zinak zer ahala duen gizon leialaren gainean, uzten zaitut libro; egizu gogoak eta bihotzak emanen darotzutena. Huna zure soinekoak, itzultzen darozkitzut; libro zare, zoazi zure amaren gana, amarik oraino balinbaduzu. Ai! eneak ez du berriz ikusiko bere haurra. Hemen egonen naiz hiratzen; hemen, harri hunen gainean utziko dut azken hatsa, oroitzen ez bazare zure eskuan dela ene bizia, eta zureak, ni galduko naizen ordutik, nihon ez du pausurik izanen.

Hitz horren gainean, uzten ditu Ithurralabaren soinekoak, eta urruntzen da nigarrez urtzera.

Ithurralabak berehala jaunzten du bere soina; bainan, soinak ukitu zuen amore belarra, eta neskatxak jauntzi zueneko, berastu zitzaion bihotzeko horma.

Zurea naiz, dio, zurea naiz, gizon gazte leiala; zuk merezi duzu Ithurramaren alaba, amodioz, bortxarik gabe, nahi izan nauzu andretzat; nik ere amodio garbiz ematen daro-

tzut bihotza eta bozik hartuko zaitut ene senar eta jauntzat.

Ezkondu ziren. Ezteietako barazkaria erditsutara zenean, norbaitek jotzen du atea. Senarrak aditurik, galdatzen du nor den han. Ihardesten diote eskale xahar bat dela: Sarraraz zazue, dio jaunak, ontasundun edo gabe, ez ote gare guziak anaia sortu? Ene zorioneko egunean, Jainko onaren ume bat ez bide da kanpotik geldituko gure bozkarioetan parterik gabe. Gizon xaharrak ordean etzuen sartu nahi. Zer egiten du jaunak? Bera badohako otoiztera sar dadien: Iluna da, dio, uria hari du, zato guregana.

Xaharrak ihardesten du: Ene alderat urrikaltsu izan zare; zuzen da, ene aldian, egin dezazudan ene ahaleko den ongia. Huna nik zer dakitan: Ithurzurrunbilotik ateratzean, zure andreak lurrean utzi du urhe-zigor bat. Berriz ikus eta esku-ra har baleza, behar luke, nahi edo ez, itzuli lehengo tokira. Holakoa da haren zoria; eta zuk gai zinezake zure andrea. Erna zaite beraz; zoazi, har zazu urhe-zigorra, eta behinbetiko gal bedi zure andrearen menetik.

Goan zen arinik jaun gaztea, atzemanik ekarri zuen urhe-zigorra, eta bere jauregiko toki gorderenean ontsa estali zuen; ezik min zitzaion hain gauza ederraren xahutzea.

Geroztik, bozkariotan bizi zen bere andre paregabekoa-ekin, eta urtea gabe, sortu zitzaioten haur bat guziz ederra. Behorlegiko jauregiak bazuen premu.

Goiz batez, jauna argia gabe ihizira goan zen. Iluna zen hura itzuli orduko. Sartzean, jauregia atzeman zuen debui-lamendutan: sehiak zoratuak zabiltzan alde orotara, zer hari jakin gabe. Nausia ikusi zuteneko oihuka hasi ziren: Jau-na! Jauna! andrea galdu dugu. Goizetik ilki da, eta ihes egin du, airez aire iduri, halako lasterrean, non ez baitakigu norat egin duen.

Beldurak hartzen du jauna; badoha urhe zigorra gordea zagon xokora eta eskas kausitzen du. Ai zer bihoz mina! Berhala ezagutu zuen Ithurzurrunbilora itzulia zela andrea. Ezbat ezbia, harateko bideari lotzen da. Ber-bera argi zirriri-

tako heldua da. Alferretan egiten du oihu, alferretan deitzen du bere andre maitea. Zurkaitz lurtean landatu bat iduri, han zagon xutik, eta egonen ere zen, oroitu ez balitz bere haurraz, oroitzapen horrek berebaitaratu zuen. Amaren bularraren eskasean, haurrak unide bat behar zuen. Bainan haurrak, ez ordua ez-eta gero ere, etzuen nahi izan arrotzaren bularrik hartu. Eta, harrigarriena, etzen eritzen, ez-eta ahultzen; aitzitik, handituz eta edertuz zihoan egunetik egunera. Halarik ere, hori etzen aski jaun gazteari kentzeko bere bihotzeko mina; beti begien aintzinean zadukan galdu zuen andrearen iduria.

Arrats batez, gogo ilunik zagon. Norbaitek jotzen dio atea. Eskale xahar batek galdegiten du gabazko aterbea. Behorlegiko jauregian, dio jaunak, nihork ez du alferretan galdatu gabazko aterbea. Gabaz eta uria delarik, Jainkoak beira nezala kanpoan uztetik haren ume beharretan dena. Sarraz zazue, hemen aurkituko ditu afaria eta ohe bat.

Barnera sartu denean gizona, jaunak ezagutzen du ezteietako egunean mintzatu zitzaion eskale xaharra; adiskide mami baten ikusteak etzion eginen hainbertzeko atsegirik. Iduritzen zitzaion aingeru bat zerutik heldu zena.

Badakitza, dio xaharrak badakitza zure nahigabeak; etorri zaizkitzu zeren xahutu ez duzun, urhe-zigorra. Hura eskura hartuz gero zure andrea ez dela bere buruaren jabe, hortaz ohar eman narotzun.

Bainan karitatetsu zare, eta gure Jainko onak sariztatzen du karitatea; haren izenean, emanen darotzut eskas duzun argitasuna.

Zure andrea gau oroz itzultzen da bere haurrari bularraren ematera. Zaude beraz erne; adituko duzu xoriak airean egiten duen xirrinta bezalako bat. Zure andrea izanen da haurrari bularraren ematerat etorria, sehaskaren gainera makurtua ikusiko duzunean, lot zakizkio gerritik, eta ez utz urhe-zigorra kendu arterainokoan.

Egin-ahalak abiatuko ditu itzuri beharrez; bainan zigorra eskuratu duzuneke, ezti-eztia jarriko da, eta gogo onez,

aintzinean bezala, zurekin egonen da.

Egiak ateratu ziren xaharraren erran guziak. Nork erranen ditu jaun gaztearen barneko pilpirak bere andre maitearen berriz ikusteko tenoreari beha zagonean? Gauerdi da. Firrinta bat airean... Andrea! itzal bat bezala lerratzen da sehaskara. Jauzten zaio senarra. Alfer alferrak dire itzurtzeko indarkak. Jauna urhe-zigorrak jabetu da. Hura galduz geroztik, andreak ez du ihes goan nahi; amultsuki gelditzen da; besarkatzen, musuz estaltzen du bere senarra. Zer zorionezko ordua! Ai! zein dohakabe nintzen, dio andreak, zenbat jasan dutan, zer ene minak bortxatua izan naizenean ene jaun maitearen ganik eta ene haurraren ganik ihes ibiltzera! Jaunak ihardesten dio: Ahantz detzagun betikotz iragan diren atsekabeak, bainan oroit gaiten zoriona bihurtu darokun gizonaz. Orduan eskuz esku badohazi xaharra pausuan, zen tokira.

Suntsitua zen handik.

Bainan zer egin urhe-zigorra? Surat artiki zuten. Garrak ukitu bezain sarri, hartarik ilki zen suge gorri bat xixtu minka; ihes egin zuen Ithurzurrunbilora eta gerenda handiaren azpira sartu, geroztik nihork ez baitu ez ikusi ez aditu.

Zoriona bihurtua zen Behorlegiko jauregian; jaun andreak hortaz gozatu ziren luzez. Eta hala,

*Ontsa bizi izan baitziren,
Ontsa ere hil izan ziren.*

VII

ATHANO

*Azkenik mintzatu zen Maria Etxauzekoa, herriko zazpi-
garren Lilia. Herjaunaren alderat itzulirik, erran zion hauxe:*

*Jauna, haurttoa nintzen gure hauzoan bizi zenean atso
bat, hain xaharra non ehun urteak puskaz iragaiten baitzi-
tuen. Hari aditu diot ixtorio bat, ene iduriz ederra; nahi nu-
ke guzien gogarako izan baladi.*

Athano Doneztebe-hirikoak noiznahi erraten ohi zuen:

*Tantiruri,
Munduan orok elkar iduri.*

xuxen etor zadien edo makur, beti solas bera zuen ahoan.
Hil zen egunean, jendeek erraten zuten: Athano hil da ber-
tzeek bezala egin beharrez;

*Tantiruri,
Athanok bertzeak iduri.*

Athanok seme bakar bat uzten zuen; eta hunek, aitari ehu-
netan aditu zion solasaren arabera, burutan zuen, mundua-
ren eta jendeen ezagutzeko etzela heien ikustera goan beha-

rrik. Parise Doneztebe-hiri baino handiago, zer erran nahi zuen horrek? Uste zuen Donestebe-hiritarrak nongonahiko jendeen idurikoak zirela. Etzenaz geroz kanpoetan deusere ikastekorik, zertara goan etxeko lanak utziz?

Nola haurretik amak elizara eramaten baitzuen, bazakien hango bidea, bertzerik baterez. Bere etxe inguruetan suertez ikusten zituen jendeek asko trufa egiten zioten; eta harek gozo-gozoan ihardesten zuen:

*Tantiruri,
Munduan orok elkar iduri.*

Egun batez, haren adintsuko arrotz gazte bat gertatu zen Athanoko aintzinean iragaitera. Arrotzak agur eginik, Athanok galdatzen dio non dabilan hola. — «Mundu ikusten nabila» ihardesten du arrotzak. — «Zer! mundu ikusten?» — «Bai, deus ez da egiagorik».

Lanoki, burlarik gabe mintzo zen gizon baten aditu nahiak kilikatu zuen Athano:

«Sar zaite, dio arrotzari; eguerdi ere dugu, zato, enekin hartuko ditutzu bi ahamen, eta anartean eginen dugu solas». Arrotzak onesten du gomitua eta sartzen da.

Jaten hari direlarik, Athanok erraten dio: «Ni, etxetik ateratzen naizenean, ez naiz eliza baino urrunago goaten. Ez dakit bertze biderik. Egia da hortaz aditzen dutala asko burla; bainan nik axola guti. Munduko gauza guziek elkar iduri dute; zer balio luke ibil nadien beti gauza beren ikusten? Eta zuk, mundua gaindi zabiltzanak, erradazu zer on ateratzen duzun zure urhatsetarik?» — «Nik, dio arrotzak, deus guti dakit, eta mundua ikusiz, ez dakitzatanak ikusten ditut».

Athano halako harridura batean zegon bere barazkaltiarri beha. Iduritzen zitzaion hura lehenago ikusirik, eta adiskidea ere zuela. Hori idurikeria bat izan behar zen, etzenaz geroz Athano nihon ibiltzen. Arrotzari galdatzen dio zer duen izena. — «Arkanjelu deitzen naute». — «Zu munduz mundu zabiltzala ikusteak ateraldi baten egiteko gutizia zerbait

ematen daut niri ere. Zer diozu hortaz? Laguntzaz har bannidezazu, gogotik abia ninteke zurekin». — «Hortaz atseginik baizen ez nuke, dio Arkanjeluk; bidean lagun bat on da; bi gizonek balio dituzte hirur; estrapu zerbait gerta baladi ere, laguntza aldean da berehala. Bertzalde, solas eginez bideak iduri du laburrago eta ahanzten da nekea.

Goan dire Athanoren duda-mudak; hartzen du makila eta bideari ematen da Arkanjelurekin. Donestebe-hiritarrek ikusi zutenean Athano bidaietan, landetarik oihu egiten zioten:

Tantiruri! Tantiruri!

«Ikusten dituztu horien burlak, dio Athanok, indargabeak dira. Halarikere, iduritzen zait on dela burlabide horien kentzea». — «Ederki! ihardesten du Arkanjeluk; ulitxa beharrian bezala da ardurako trufa».

Doneztebe-hiritik, lehenbiziko urhatsak eraman zituen Donamarti-hirira. Han, jendea nigarretan zegoen: ehorztera zaramaten Beltzuntze bizkundera.

«Ai! dio Athanok, hemen ere gure herrian bezala... jendeak hiltzen, eta gero nigarrak... *Tantiruri!*»

«Hala da, dio Arkanjeluk; erranen darotzut hargatik guzientzat ez dohala bardin. Hainitz gizon ona zen Beltzuntze. Jende horiek aria dute nigar egiteko, beren aita galdu dute. Ona izan ez balitz, irriz eramanen zuten ehorztera. Bainan, ikusten duzunaz, bertzerik da. Hiltzea, bizi berri baterako sartzea da. Orai, Jainko zuzenak Beltzuntzeri ematen dio bizian egin izan duen ongiaren saria».

«Nik, dio Athanok, ez dut ene jakinean gaizkirik egiten nihori».

Eta, Arkanjeluk: «Gaizkirik ez egitea ongi eta ederki da segur, bainan halere ez aski; ongia ere egin behar da».

Hola-hola solasean hari direlarik, gure ikusketariak Armandaritzera heltzen dire. Han etzen nigarririk: eliza-besta eta dantzak. Iluna hurbil zelakotz, gazteria berokiago baizik etzen jauzika hari, azken orenaz baliatzeko.

*Tantiruri,
Munduan orok elkar iduri!»*

«Egiatik urrun zabilta, ihardesten du Arkanjeluk. No-laz etzare ohartzen gure Jainkoak nahiz gauzak, nahiz gizonak, egin izan dituela batzu bertzeak ez bezalakoak? Handi, xume, arteko, negurri guzietara egin ditu. Horratxeko gizon hori konkorra da, hunatxeko hau okerra; horra maingu bat; gazte harroak zenbat! Xuriak eta beltzaranak, dirudun dirugabeak ikusten ditugu guziak elkarrekin. Jainkoak baktxari eman dio bere bidea, luze edo laburra, nekea edo errexa; eta zeinek berea egiten du ontsa edo gaitzki. Jainkoak guziak gure onetan xuxendu ditu; ongiaren ahala guzieren ematen daroku. Egun ikusi ditugu nigarrez zohazinak; aldiz, huna hemen jauzika eta irrintzinaz hari direnak. Jainkoak daki nori eta zergatik eman atsegina, nori eta zergatik atsekabea. Guri dagokigu zeinek gurea ontsa hartzea».

Iluntzea zen Armandaritzeko jauregira heldu zirenean bi arrotzak. Galdatu zuten gau hartako aterbea. Jaun baroina etzen Beltzuntze bezala maitatua; ez bada gaixtoa izanez, etzuen nihori bidegaberik egiten, ez-eta ongirik ere; baktxa zen bezala uzten zuen. Bere burua zuen maite: berekoiak us-te du bere burua maite duela bere galtzetan hari denean.

Gizon idor horrek arrotzeri ihardetsi zioten, etzuela eza-gutugabeko jenderik etxerat hartzen; zihoazela etxetiarrera edo bertze nora-nahi.

Etxetiarrak kantuz heldu ziren plazatik; ongi hartu zituzten arrotzak, eta erran zioeten: Uria hastera doha, zatozte barnerat; badugu eguerdiko barazkaritik afaltzeko utzi ziki-roki puska bat. Ha! jaunak, bakan jaten dugu haragia, urtean behin da eliza-besta; ongi etorri zaretela. Sar zaitzte, gurekin guk bezala eginen duzue».

Afaldu direneko, tarrapataka hor heldu da jauregiko mutil bat: «Laster! laster! dio; deit zatzue apezka eta midikua; nausia bat-batean eritu zaiku; ja galdua du hitza».

Hauzo bat suertez han gertatzen zen. Ikusten zuen ordu-

ko nahasmenduan bi arrotzek etxe hartan etzuketela pausu onik. Bere etxerat eramanik, ohe on bat eman zioten.

Ilunduz geroztik, uria jausten zen zurrupikan, eta gau guzian hala-hala iraun zuen. Argitzean, ihara batetako antapera hautsirik, uhar gaitz, itsasoa iduri, bazter apaletara zabaldu zen. Asaldutan eman zen bi arrotzak hartu zituen etxeko jendea. Behere aldean bazuten borda bat aberez betea. Harat lasterka egin zuten orok. Ja berantegi zen; urak trenkatzen zuen bordako bidea, barneraino sartua zen. Aziendak, beren esteketarik ezin libratuz, itotzera zohazin; ageri ziren heien marrumak. Nor atrebi uharrera? tiroka zohan gaia. Jende gaixo heiek etsitu zuten azienda, beren izaite guzia, eta erraten zuten: Bete bedi Jainkoaren nahia!

Gauzak hortan ziren; Arkanjelu zen bakarra etsimenik hartu etzuen. Bat-batean lazten ditu guziak; uharrera jauzi da. Gaia mutiriak behin baino gehiagotan anbilkatzen du; bainan igerikari hazkarra da, garaitzen du uren zorroztasuna eta bordara sarturik, trenkatzen ditu estekagailu guziak.

Orduan aziendek iragan zuten uharra. Jendeek bildu zizutuztenean, bi arrotzeri nahi izan zioten beren ezagutza erakutsi. Bainan etziren han gehiago, ezik berehala norapait urrunduz ziren.

Athanok erraten zion bere lagunari: «Horra gizon bat niholaz gure alderat zordun etzena, eta bere etxerat ereman gaitu ikusi duenean jauregiko debuila menduaren ariaz, han ez gintzakela izan ontsa. Zuri esker, orai badu merezitu saria. Aldiz, jauregiko nausi idorra angora hila bide da, eta nola hartu duke Jainkoak?»

Arkanjeluk ihardetsi zion: «Jesus Jaunak erran du: Ez juaia, etzaitzeten izan juiatuak. Hari dagokio gizonaren juiatzea.»

Handik jo zuten Iholdi Agerrera. Etziren han baratu. Hagarregoa nausitua zen etxe hartan; lau haurride kasailatzen ziren lur pozika baten gainetik.

«Horra, dio Arkanjeluk, ontasun gosearen ondorioa. Ez-deuskeria baten gatik hauzitan dira hemen; gauzaren balio-tik zenbat gehiagoren xahutzera dihoazi? eta nork daki makur horrek zer nahigabeak, zer aiherkunde eta bertze ondorio txarrak erakarriko dituen familiara? Goazen, goazen hemendik urrun».

Berriz lotzen dira bideari eta heltzen Irisarri Samaura. Bai, han etzen nigarrrik ez samurgorik, ordu hartan bederen. Tanburina eta xirola aintzinean, jendeak pixtolet tiroka heldu ziren elizatik. Andregai zen espos.

Arkanjeluk ezteiliarretan bazituen ezagunak. Nahi izan zituzten sarrarazi gure bidaiariak. Arkanjeluk etzuen onetsi gomitua; eskerrak emanik, jo zuten bideari. Bidean erran zion Athanori: Gizon horien artean badire ardura mozkortzen eta aharratzen direnak; ez da zuhur holakoekin nahastekatzea.

*Hasteko, tanburin xirolak;
Edan-eta, zanpak eta izkolak.*

Ilundiriko heldu ziren Suhuskune Jelosera. Etxeko andrea atean zagon. Galdatzen diote gauko aterbea. Begiak eroriak zituen emaztekiak: orduan segurik, etzuen etxean arrotz beharrik. Bainan iluna gainean eta harekin uria. Andreak ihardesten diote: «Jainko onak ez du nahi holako aroan utz deztadan bi arrotz kanpotik. Sar zaitezte; gure behartasunak uzten darokugunetik emanen darotzuetegu».

Barnera sartu ondoxean, Arkanjeluk galdatzen dio hean zerk goibeltzen dion bihotza. Andreak ihardesten du: «Ez da egia bezalakorik, zorrek daramatet etxea. Senarra galdu dut luzez eri egonik; gero uzta txarrak altxatu, buruziarik ezin egin, zorrak sortu, eta bihar enkantetik goanen da ene izate apurra. Jainkoa urrikal bekit! ez dakit non etzi pausutuko dutan burua.

Arkanjeluk ihardetsi zion: «Gauza horietaz egun baino lehen argitua nintzen. Zure burua ez biozozu atsekabeari eman; badakit ezen zure egitekoak oraikotz antolatuak direla guziak».

Argia gabe goan ziren bi arrotzak. Goiz berean letraketariak ekarri zuen berria, alarguntsaren zorrak pagatuak zi-rela guziak, eta etzuela gehiago zeren beldurrik izan. Andreak ez du behinere jakin ez nola ez nondik etortzen zitzaion zor-ion bat hain guti igurikia.

Heletako feriak ziren orduan. Goazen ferien ikustera, dio Arkanjeluk; han ez dakigun zerbait ikasiko dugu. Bidean, solas eta solas dihoazelarik, Arkanjeluk bere adiskideari erra-ten dio: «Ikusi duzu bardako alarguntsa onaren nahigabe mi-na. Beti danik Jainkoari fidel izan baitzaio, Jainkoa ere, or-du gaitzean hitzeko izanen dela, ez egin hortaz dudarik, ezen bere saria agindu dio haren izenean baso bat ur emanen due-nari».

Feriara heldu-eta, sal-erosleen artean ibili ziren. «Ikusa-zu, dio Arkanjeluk, zenbat gezur eta espantu tzar egiten du-ten gizon horiek batak bertzea enganatu beharrez. Hunako hunek sasualtzat ematen du abere erdi usteldu bat; bertze ho-rrek, dainurik aziendari kausitu gabe, ehun estakuru badi-tuela erraten dio saltzaileari, galdatu prezioa nahi bailioke apalarazi. Hementxe, oihaleria saltzaile hunek prezio doble-tan bere puskak sakatzen ditu oihaletako ezagutzarik ez du-teneri. Beha nola, saltzaileak oi hala airean derabilkalarik es-pantuka, beha nola emazteki horrek azpitik hedatzen duen eskua zerbaiten ebasteko. Eta jende zuzenik zein guti!»

Orduantxe ferian agertu ziren hiru gizon elkarren ondo-tik lerroan zabiltzanak. Etzituzten beren izenez deitzen, bai-zik ere izen-goiti batzuz. Bati erraten zioten *Latanziri*, salt-zen zituelakotz akuloak eta jats zirietan sartuak. Luxea zen eta izan-ahala mehe, haurraren heineko buru ttipi batekin. Iduri zuen ur hotzez bizi zela. Bertze biak Buhamiak ziren, ez elkarren trakakoak. *Otarre*, hola deitua otarrekina zela-kotz, motza zen eta kozkorra. *Joare*, haren anaia joaregilea, luzea zen eta zardaia, bi begi larri beltzekin.

«Hiru gizon horiek, dio Arkanjeluk, goaten dire Ahaz-parneko merkatu guzietara. Beren zuzentasunez ezagutuak

dire. Bi Buhamiek gezurtatzen dute kastako aipamena. Ahal bezala ateratzen dute bizitzekoa. Horien odoleko ohointzan hari direnak, azkenean ez dira izanen horiek baino aberatsago. Tzarkeriako gizona barneko gozorik gabe bizi da. Bertzalde, Jainkoak bere orena hartuko du, eta bide batez ez bada bertzeaz emanen dio gaztigua bizitze huntan, aipatzen ez delarik sekulako heriotzea urrikitan sartu gabe hiltzen direnentzat».

Hirugarren egunean, gure bidaiariak izan zuten ikuskari alegerago bat. Lau neskatxa irrigura zauden harrizko alki batetan; heien aintzinean emazteki luze mehar bat xutik; eskuak eta besoak erabiliz, hitzak errepikan zaramatzala, hura hasarre gorrian, bertzeak irriz; iduri zuten kaxkabilak jauzikoe-tako xirolarekin. Eltze hautsi bat, hartan zen egiteko guzia.

Eguerdi gainean Arkanjeluk erran zion Athanori: «Badugu ikusirik aski; ordu da har dezagun etxe-alderako bidea».

Garraldako lepoa iraganik, heldu ziren Doneztebe-hiriko gainera; Athanoa ageri zen handik. Arkanjeluk lagunari erran zion: «Nik hobe dut hemendik xuxen Ahazparnera jotzea».

Athanok etzuen hitzik, koropilatua bezala zuen bihotza. Eskua harturik, Arkanjeluk erran zion: «Örai arteko bide zuzenaz ibili zare; zaude hortan. Gizonen ganikako laguntza menturakoa da eta maiz indargabea. Jainkoaren gainean berma zaite: hura da beti bat eta bere umeen laguntzaile. Agur, banoha, bainan etzaitut ahantziko».

Hori erran-eta, Arkanjelu goan zen bere bidean. Athano, harritua bezala, xutik zagon: iduritzen zitzaion adiskiderik minenak uzten zuela. Begietarik galtzean, hasbehera-pen luze bat egin zuen; han berean zagon, beti alde berera beha. Noizbait jautsi zen malda beheiti, eta bihotza handirik, itzuli zen etxerat.

Erran izan dut nola Athanora etorri zenean Arkanjelu, Athanori iduritzen zitzaioela lehenago danik bazuela harekilako ezagutza. Etzuen bada gauzak kanorerik, non Athanok iharduki zuken harekin? Laster argitu zen horren gai-

nean. Igandean, elizara sartu deneko, Athanori begietara hel-
du zaio erretaula zahar bat hara jaun done Mikele Arkanje-
lu handia handik beha dagokiola. Orduan ikusi zuen Atha-
nok nondik zuen bere bideko lagunaren ezagutza. Gogoan
erabili zituen bidaiako gora-behera guziak, aingeruaren erran
zuhurrak eta berezikiago haren azken hitza,

Agur, etzaitut ahantziko.

Bihurtu ziotzan eskerrik bizienak. Huna geroztik goiz
arrats egiten zuen otoitza:

«Jaun done Mikele handia, bida zatzu ene urhatsak, izan
zite orai eta gero ene gerizape, azken orduraino».

Athanok bizia eraman zuen gizon prestu eta jainkotia-
rrak bezala.

*Eta nola ongi bizi izan baitzen,
Hala ere dohatsu hil izan zen.*

VIII

HERJAUNAREN HITZAK

Herriko Zazpi Liliak akabatu zutenean zeinek bere kondera, han ziren guziek etzuten aski aho heien laudorioaren egiteko. Herjauna orduan hunela mintzatu zen:

«Ez dut aspaldian horrenbertze atsegin hartu nola gaurko gauan. Milesker, andreak; Liliak deitzen zaituztete; bainan legez zarete lili eder maitagarriak. Hobekienik mintzatuko zenari agindu diot ezkontzeko dotea; nork lakike zuen artean berezten? Batzuek ezik nola bertzeek atsegin bera eman izan darokuguzue. Erran nuen, kondera luze edo labur izan zadien etzela axola, gogaragarria izan zadien ber. Alde orotarik aditzen dut bardin atsegingarri izatu zaretela; beraz sari bera duzue merezi. Ene gogoa da aurten ezkontarazteko ene alaba andrea. Egun berean, oren berean, esposatuko duzue zeronen gogoko izanen den gizon gaztea.

Bainan zu, ene alaba maitea, ixilik egotu zare; zurerik ez darokuzu erran deusere. Eta bada, zure ama zenak (Jainkoak bere lorian duela) bazakitzen nihonereko kondera ederrak. Bat baino gehiago aditu duzu haren ahotik. Orai litake ordua guri hetarik baten errateko zure hautura».

Aitoralaba jaikitzen da. Huna haren hitza:

«Ene aita Jauna, zure gogoko den guziaren egitea, hor

tan da ene gogoena. Ni ere entzun nahi nauzunaz geroz, urrun ene ganik zuri zehar egitea»:

1. KARITATEA.

*Jainkoaren gatik egin karitateak,
Zerura darama zabaldurik bideak.*

Sagazpeko zubiaren aldean, gizon xahar bat arkumaka zagon bideko errekan. Aragones bat gertatu zen iragaitera bere mandoaren gainean. «Hel hel, zion gizon xaharrak; Jainkoaren gatik egidazu laguntza». «*No entiendo*, ihardetsi zuen erdaldunak; Arri, macho, arri!» Eta bururik itzuli gabe, jo zion ber bideari. — «Arri? nonbait baratuko haiz hi».

Etorri zen gero itzain bat orgekin. Gizon xaharrak berriz oihu: «Hel! Jainkoaren izenean». Itzainak ihardesten dio: «Etxez aldaren egiten hari naiz; orgak kukurruka beteak ditut, toki hutsik ez dut zure hartzeko. Beei, idia, beeei!» — «Beei? hire lekua laster atzemanen duk, hire beha ziagok».

Haren ondotik heldu da gizon gazte bat lasterreginez. Xaharrak alferretan dei egiten dio. Trikatu gabe mutilak ihardesten du: «Midikuketa noha eri batentzat, arno xorta baten edateko astirik hartu gabe. Ez dut denborarik galtzeko». — «Ez duk arno edateko astirik izan? izanen duk ur edateko».

Horra, berriz, gizon batazienda errebelatu batzuen ondoan dabilana. Beldur da otsoak jan detzon, laster ez bazaiote heltzen. Bertze batek urdeak merkaturat daramatza, eta ez detzazke bidean trebes utz. Gero bertze batzu eta gehiago ere. Guziek aria onak badituzte, nihor ez da gizon xaharrari laguntzarik emateko heinetan. Kurri, mutilak, kurri! zuen estakuruak pisu xuxenetan pisatuko dire. Bai, bai, estakuruak horiek oro. Min duenari laguntza ematea, horra lehenbiziko eginbidea, horra Jainko-legea.

Azkenik agertzen da gizontto bat, pilda txarretan, axto-ko baten gainean jarria bi xixteren artean. Xaharrak dei egi-ten dio dolumenekin. Gizonttoa gelditzen da eta galdatzen dio zer nahi duen.

— «Hemendik norapait eraman nezazun, ez bainaiz ne-roni higitzeko gai».

Gizona astotik jausten da, diolarik: «Hirira behar-beha- rrez noha jats xume batzuen saltzera; es dut deus bertzerik; horien dirutik erosiko dut labore zerbait. Ez izanez jatera zer eman, haurrak barurik etxean utziak ditut ene itzultzeari be- ha. Ordu hertxia den arten, etzaitut hor utziko».

*Guk elkar lagun,
Jainkoa guzien helkun!
¿Zeren dukegu beldurrik?
Jainko hitzak ez du gezurrik!*

Hortan, badohako xaharrari, eta ahal bezala asto gaine- ra heltzen du. Gero aintzinean igortzen du, diolarik:

*«Arri, arri, axtoko,
Jainkoak ez gaitik ahantziko».*

Gizonttoa mainguka zohan ondotik. Piltzar batetarik eza- gun zen zauri zerbait oin batean bazuela.

Holaxe ttoko-ttoko zihoazelarik, gizon gazte eder batek gibeletik atzeman zituen. Asto gaineko xaharraren ezaguna zen. Eskua hunkituz, erran zion: «Agur Petri».

— «Egun on, Ganis», ihardesten du xaharrak.

— «Jainko ona bekigu lagun, dio berriz Ganisek, egun hau ezen egun gaitza dugu. Ez da nihondik berri txarrik bai- zen ageri. Aragones bat, bere herrira itzultzen zena, ohoinek hil dute Oihan-Beltzeko errekan eta zituen guziak ebatsi di- tuzte. Zer bihozminak joko duen haren emazte gaixoa!

Itzain bat, berriz, etxe aldan hari zena, orgek, uzkailirik, azpian hartu dute. Bi besoak hautsiak ditu eta tresnak xeha-

katuak. Jende on batzuk bere etxera bildu dute. Orai han dago ohean marrumaka.

Midikuketa zohan mutil bat, zubi txar batean iragaiten zelarik, urerat erori eta ito da. Midikuak ez daki, eta eria, laguntza eskasez, hilen da menturaz.

Erraten dute oraino, Donibaneko karrosak urdain bati lehertu diola urderik ederrena. Hura ez da hain dohakabe nola zenbait abere errebelaturen ondoan zabilan gizon bat. Atze-man ditu, bainan zezena erdibasa zuten eta adarraz hertzeak egin diotza gizonari.

Ez dire horietan berri txar guziak, bertzerik ere aipatzen dute. Jainko ona alde bekigu!»

Gure maingua ez da lotsatzen, ihardesten du:

*«Guk elkar lagun,
Jainkoa guzien helkun!
¿Zeren dukegu beldurrik!
Jainko hitzak ez du gezurrik!»*

Ordu berean, ezkilak jotzen du eguerdi. Gure bidaiariak trikatzen dira; eta bonetak erauntsirik, erraten dute Anjelus. Azken amena akabatu duteneko (oi gauza harrigarria, eta harrigarri bezain egia!) mainguak ikusten du asto gainean zen zaharra xutitzen bet-betan; bi urhezko gako handi daduzka esku batean; bertzea hedatzen dio bere adiskideari; eta biak, eskuz-esku, hedoietan gora zerurat igaiten dire.

Gizon ttipi karitatetsuak orduan ezagutu zuen Jaun done Petriren eta Jaun done Joaniren lagun ibili zela. Mirakuluaz harrিতua eta balditua lurrera belauriko erortzen da. Nahizukeen otoitz zerbait egin; etzakien zer erran hau baizik: «Milesker, Saindu handiak! Milesker, Jauna! Jainko ona, milesker orai eta gero, beti eta beti, mendeek dirauteno! Hala biz, hala biz!»

Nork daki noiz arteo egonen zen hola, beti hitz berak erranez, zerbaitek bihotzera ekarri ez baliotza bere haur etxean gosez geldituak?

Lurretik jaikitzean ohartzen da oineko lotura eroria duela eta zauria sendatua. Eta oraino, astoaren gainean, zer ikusten du? jartokian zakuto bat diruz betea, eta xixteretan, talo, gasna, xingar eta zahako bat arnoarekin. Liluratu ziren haren begiak, eta etxerakoan Jainkoari kantatzen zion amodiozko kantu hau:

*Argi ederrak goizean
Zerua gorritzen duenean,
Adoratzen zaitut, Jauna!
Berriz ere zure gana
Altxatuko dut bihotza,
Harekin ene otoitza
Gaua itzultzen denean.
Zuk daduzkatzu eskuan
Atsegin, atsekabeak,
Gauzen izan, gauzen gabeak,
Batzuen sari, bertzen gaztigu,
Jainkoa, guri urrikal bezazkigu!
Lagun gaitzatzu gure behar orduetan
Hel zakizkigu gure azken orenetan!
Jauna, zu zare amodiozko iturria,
Karitatea zutaz izan da igorria
Goza dezagun hemen zuk eman bakea,
Zabal daukuzu gero zeruko atea!*

Aitorialaba ixiltzen da. Zoratuak zauden oro, nihor etzen ahoaren idekitzera ausartatzen.

Herjauna lehenik da xutitzen. Tintinka besarkatzen du bere haurra eta erraten dio: «Bai, zure baitan ezagutzen dut zure amaren odola. Nolakoa eta noraino heltzen zen haren karitatea, Jainkoa da bakarrik hori dakiena. Zu zare haren alaba, eta egun batez zuretzat dago harek orai gozatzen duen zoriona.

Zure eskua galdatu duten guzien artean, Korbaran Jatsu Laskorrekoak izan du zure hautamena. Nafarroan ez da ezkutari balentagorik. Onesten dut zure gogoko dena».

2. ESPOS KOROA.

Orduan hurbildu ziren Zazpi Liliak; aldizka musu eman zioten aitorabalabari eta jarri ziren haren inguruan. Herjau-nak, ikustearekin lore floka xarmagarri hori, erran zuen bere bozkarioan: Egun hau zorionezko eguna da. Ez Espainian ez-eta Frantzian ere ez da aitoralabarik Baigorriko Terexak bezain espos-koro ederra izanen duenik.

Ezkontzetako egunean, gazteria xuriz jauntzi zen, etxe aintzinak lorez beteak oihal xurien gainean. Germietatik, Urdosetik, Haritzaldetik, Banka eta Aldudetik, Anhauze, Lasa eta Azkaratetik, gizon gazteak mairu dantzari heldu ziren, tanburin, xirola eta atabalak aintzinean. Bestek aste osoa iraun zuten. Diotenaz, ez da egundaino hain ederrik nafar herrietan ikusi eta geroan ikusiko ere.

Ezteiliarrek ibar guziko ingurua egin zuten zaldiz. Buru buruan, behor xuri baten gainera igana, bere senar jaunaren aldean zohan Terexa xarmagarria; Haren ondotik Zazpi Liliak beren jaunekin eta gero ezteiliarrak moltzoan lerroaren akabantzan.

Etxe bakoxtaren atean agertzen zen etxeko jauna bere andrearekin; nausiak azpil bat ogi bihiz betea, andreak gorgoila batean arnoa. Herjaun gazteak dastatzen zuen arnoa: ogia hartu-eta, bihurtzen zion ekarleari, erranez: «Ene ezkonturteak ez du petxik ikusiko».

3. BESTEN AKABANTZA

Munduko gauzak iraupen gutikoak dire; bestek dute epe laburrena. Baigorrikoak iraungi ziren egundainoko guziak bezala. Azken egunean, herriko plazara bildu zen jende elementia bat. Zazpi Liliak beren erreginarekin agertu ziren akabantzaren ematera. Plazaren erdian zortziek dantzatu zituz-

ten Eskaldunen bi dantza zahar, *kanadellak* eta *bendela*. Katamoreak eskuan, inguruka dantzatu ziren, oin mokoaren gainean itzulikatuz orai harat gero hunat, katamoreak firrindatuz pondu bat huts egin gabetarik. Nor etzen xoratuko Zortzi Lilien esker ederrari? Orok nahi zuketzen egun harek iraun balu urte bat. Iguzkiak etzuen nihor entzun, itzali zen gauaren ihes; eta jendeak etxerakoan, oxalaka erraten zuen: «Ai ai! noiz ikusiko dugu holako bertze besta bat!»

Iraunkorrigo izan zen Zazpi Lilien eta heien erreginaren bizitze ederra. Beren denboran izan ziren erien kontsolagarri eta jende beharren lagungarri. — Eta errana den bezala:

Nola bizi, hala hil,

sinestea dugu Jainkoak orai bere lorian daduzkala.

HIZTEGIÑO

Ahalke: lotsa

Ahamen: *mokaua*

Ahapatik: *ahopetik*

Aharratzen: *hasarratzen*

Aiherkunde: *mendekatze, bengantza*

Aintzinatu: *aurreratu*

Aitoralaba: *aiton-alaba; era berean Aitorensene: aitonen-eme: aita onaren seme; hidalgo.*

Aldaratu: *baztertu, urundu*

Anbildu: *itzulika erori, bueltaka erori, amildu*

Anbilkatu: *itzulikatuz erori*

Anartean: *bitartean*

Angora: *itzulipurdi, hankaz gora*

Antapera: *andapara, urbidea*

Ardura: *maiz, sarri, usu; usarioko, arrunt*

Arkumaka: *indarka*

Arrangura: *arrenkura, kezka*

Artiki: *jaurtiki, ihaurtiki, ihartiki, aurtiki*

Asturugaitz: *zorigaitz*

Atzartu: *itzartu, iratzartu, esnatu*

Azpil: *janariak mahaiera zerbitzeko platera*

Baldatau: *elbarritu*

Baratu: *baretu*

Bihi: *fruitu, garau, ale*

Buruzia: *ezbeharrei aurpegia emateko ahalmena, nahigabeak jar-
rera onez hartzea.*

Debuilamendutan: *nahasmendutan*

Dostatzen: *jostatzen, jolasten*

Ebatsi: *lapurtu, ostu*

Elemenia: *jendetza, samalda*

Enkante: *subasta*

Erantsutera: *entzun, jakin-eraztera*

Errara: *erroz gora, buruz (aurpegiz) gora, buruzgora begira etza-
nik; auspaz edo auspez-en alderantzizkoa.*

Errok: *erraiok, esaiok, esan-egiok*

Erron: *arraultza jartzea, arraultzagintzan oiloa jartzeko era*

Estakuru: *aitzakia*

Etsiako: *ahaneko, ezinbesteko*

Ezteiliarrak: *ezteietan partaide direnak*

Fereka: *igurtzi leuna*

Floka: *lore sorta*

Gaia: *uholdea*

Gako: *giltzia*

Gerenda: *harkaitza*

Goan: *joan*

Gorgoila: *gantxila, potijoa*

Haro: *abots*

Hasbeherapen: *hasperen*

Hastari: *asteko eiheraldia, asteroko ehaldia*

Hazkurri: *alimentu, janari, elikadura*

Hedoi: *hodei*

Hegats: *luma, hegal; teilatu hegala, mendi hegala, itsas hegala*

Hegi: *hegal; mendi, erreka edo itsas hegala*

Herjauna: *herri-jauna*

Higitu: *mugitu*

Hisia: *borondate tinkoa, zioa, tirria*

Iguriki: *itxaro*

Iguzkia: *eguzkia*

Ihara: *eihara, errota, bolu*
Ihauska: *iraulka*
Ilki: *irten*
Iraungi: *itzali, suntsitu, finitu*
Izaia: *izei, abeto: abeto pinundoa*
Izkolak: *intziriak*

Ja: *ia, jadanik*
Jazar: *aurrez aurre jartzea, jarki, eraso*

Kasailatzen: *hasarratzen*
Katamore: *tanburina, danboliña; euskaldunen tanburin mota bat.*
Kondera, khondera: *kondaira*
Koro: *korona*

Mainguka: *errenka*
Mana: *agintzea*
Marranta: *mafrundi, erlats*
Mutiriak: *jarrera ausartak*

Nihork: *inork*

Ohoin: *lapur, ebasle*
Oin moko: *oin punta, hanka punta*
Oren: *ordu*
Orga: *gurdi*
Orkatz: *corzo, chevreuil*
Osin: *ibai edo erreketan uren sakonunea, ibaietan ur sakonak dau-
den tokia.*
Otxin: *aintzinako diru bat*
Ozarrik: *ausartasuna*

Pendoitz: *pendiz*
Pesia: *ekaitza, erauntsia*
Petsea: *zerga*
Pilda: *piltzar: soineko zahar adabakindunez jantzia, zarpail.*

Sarri: *laster*
Sasual: *sasoikoa, osasunduna*
Sehi: *neskame, morroi, zerbitzari*
Sendagaila: *mirakulu*

Ttattiko: *deusez!, tirrit!*

Uhartze: *hodeiertz, ostzertz, horizon, horizonte*

Ulitxa: *eltxoa, eulia*

Unide: *inude*

Urhaqs: *urrats*

Urhe: *urre*

Uria: *euria*

Urrikal: *erruki*

Urrikalgarri: *errukarri, errukigarri*

Urrurik: *doharik, dohainik, debalde*

Xahutu: *gastatu, deuseztu, agortu, ondatu, ahitu*

Xarmata: *xarmanta: zoragarria*

Xispa: *txispa, suzko arma, fusila*

Xixtera: *xistera, txistera, zare*

Zahako: *zato*

Zalu: *malgu, laster, azkar*

Zardai: *lerden, lirain*

Zikiro: *ahari okela, ahari zikiratuaren okela*

Zilhar: *zilar, zidar*